



EUSKO LEGEBILTZARRA  
PARLAMENTO VASCO

## DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA INKLUSIORAKO LEGE-PROPOSAMENA

ZIOEN AZALPENA .....	6
I.....	6
II.....	8
III.....	11
IV .....	12
V .....	15
<b>I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK .....</b>	<b>18</b>
1-. Xedea eta eremua .....	18
2-. Helburuak .....	18
3-.Oinarrizko printzipioak .....	18
4-.Arreta-eredua .....	20
5-.Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren oinarrizko osagaiak .....	21
6-.Prestazio ekonomikoak.....	21
7-.Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako tresnak.....	22
8-.Etxebizitza edo bizitokia .....	22
9-.Bizikidetzaren unitatea .....	22
10-.Titularrak, onuradunak eta jasotzaileak. ....	24
11-.Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlea .....	25
<b>II. TITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOAK.....</b>	<b>26</b>
<b>I. KAPITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN EZAUGARRIAK .....</b>	<b>26</b>
<b>I. ATALA. ESKUBIDEZKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK .....</b>	<b>26</b>
<b>I. AZPIATALA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA .....</b>	<b>26</b>
12.-Definizioa.....	26
13.-Prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizunak.....	26
14-.Titularren eta onuradunen betebeharrak .....	28
15-.Bizikidetzaren unitate primarioak eta sekundarioak.....	29
16-.Hileko zenbaeko onartua finkatzea.....	30
17-.Gehieneko errenta bermatua .....	31
18-.Inplikazio aktiboaren koefizientea .....	33
<b>II. AZPIATALA. PENTSIODUNENTZAKO ERRENTA BERMATUA .....</b>	<b>33</b>





19.-Definizioa.....	33
20.-Pentsiodunen gunea .....	33
21.-Prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizunak.....	34
22.-Titularren eta onuradunen betebeharrak .....	35
23.-Hileko zenbateko onartua finkatzea .....	36
24.-Gehieneko errenta bermatua .....	37
25.-Inplikazio aktiboaren koefizientea .....	38
<b>III. AZPIATALA PENTSIODUNENTZAKO ERRENTA BERMATUAREN ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN XEDAPEN ERKIDEAK.....</b>	<b>39</b>
26.-Ezaugarriak .....	39
27.-Modalitateak .....	39
28.-Inklusio-hitzarmenarekin duen lotura.....	39
29.-Prestazioen aldiberekotasuna. ....	40
30.-Titularren aldiberekotasuna .....	40
31.-Sortzapena eta ordainketa.....	40
32.-Eskubidearen iraupena .....	40
33.-Egiaztatzea eta gainbegiratzea .....	40
34.-Aldizkako berrikuspenak.....	41
35.-Hileko zenbateko onartua aldatzea.....	41
36.-Kautelaz etetea.....	42
37.-Eskubidea azkentzea .....	42
<b>III. ATALA. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK .....</b>	<b>43</b>
38.-Definizioa.....	43
39.-Ezaugarriak .....	44
40.-Erreferentziako balio ekonomikoa gizarte-larrialdietarako laguntzei dagokienean .....	45
41.-Gizarte-larrialdietarako laguntzetara iristeko betekizunak.....	46
42.-Onuradunen betebeharrak .....	47
43.-Zenbatekoa finkatzea.....	47
44.-Prestazioen eta onuradunen aldiberekotasuna .....	48
45.-Ematea eta ordaintzea .....	48
46.-Aldizkako berrikuspenak.....	49
<b>II. KAPITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN ARAU ERKIDEAK .....</b>	<b>49</b>
<b>I. ATALA. BALIABIDEAK BERE OSOAN HARTZEA.....</b>	<b>49</b>
47.-Baliabideak bere osoan hartzea .....	49
48.-Errendimenduak zehaztea .....	49





49.-Ondarea zehaztea.....	50
III. ATALA. PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA.....	51
50.-Bidegabeki jasotako kopuruak erreklamatu beharra.....	51
51.-Bidegabeki jasotako kopuruak .....	51
52.-Bidegabeki jasotako kopuruak itzultzeko erantzukizuna .....	51
53.-Prozedura .....	52
54.-Preskripzioa eta iraungitzea.....	52
55.-Prestazio eta laguntza ekonomikoen zenbateko osoa .....	52
III. ATALA. BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK .....	53
56.-Bateraezintasunak eta bateragarritasunak.....	53
IV. ATALA PROZEDURAKO ARAU ERKIDEAK .....	53
57.-Eskabidea.....	53
58.-Instrukzioa .....	54
59.-Izaera ekonomikoko baliabide eta prestazioak egiaztatzea.....	54
60.-Ebazpena, ebazteko epea eta administrazioaren isiltasuna.....	55
61.-Konfidentzialtasuna .....	56
62.-Errekurtsoak .....	56
III. TITULUA GIZARTE- ETA LAN-INKLUSIORAKO TRESNAK .....	56
I. KAPITULUA. INKLUSIO-HITZARMENA .....	56
63.-Definizioa eta izaera.....	56
64.-Hartzaileak.....	56
65.-Inklusio-hitzarmenaren edukia .....	57
66.-Esku hartzen duten aldeak.....	57
67.-Prozeduraren hasiera .....	57
68.-Inklusio-hitzarmenerako erreferentziako profesionala.....	58
69.-Esku hartzen duten alderdien betebeharrak .....	58
70.-Ebazpena, ebazteko epea eta administrazioaren isiltasuna.....	59
71.-Berrikuspena, aldaketa eta aldi bateko etendura .....	59
72.-Askatzeko arrazoiak .....	59
73.-Konfidentzialtasuna .....	60
74.-Errekurtsoak .....	60
II. KAPITULUA. GIZARTE- ETA LAN-INKLUSIORAKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK .....	60
75.-Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako esku-hartzeen motak .....	60
76.-Gizarte-inklusiara bideratutako gizarte-zerbitzuak .....	60
77.-Gizarte-inklusiara bideratutako laneratze- eta enplegu-programak eta -zerbitzuak.....	61



78.-Gizarte-inklusionarako programak eta zerbitzuak beste jarduera-eremu batzuetan .....	61
<b>IV. TITULUA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ETA INKLUSIORAKO EUSKAL SISTEMAREN PLANIFIKAZIOA ETA GARAPENA .....</b>	<b>62</b>
79.-Xedapen orokorrak .....	62
80.-Plangintza-printzipioak .....	62
81.-Inklusionarako Euskal Plana .....	63
82.-Inklusionarako programak .....	63
83.-Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemaren tresna tekniko erkideak .....	63
84.-Arretaren kalitatea hobetzea, profesionalak prestatzea eta ikertzea .....	64
<b>V. TITULUA. ESKUMEN- ETA FINANTZAKETA-ARAUBIDEA.....</b>	<b>65</b>
<b>I. KAPITULUA. ESKUMEN-ARAUBIDEA.....</b>	<b>65</b>
85.-Xedapen orokorrak .....	65
86.-Eusko Jaurlaritzaren eskumenak .....	65
87.-Foru-aldundien eskumenak .....	67
88.-Udalen eskumenak.....	67
<b>II. KAPITULUA. FINANTZAKETA .....</b>	<b>68</b>
89.-Finantzaketa-iturriak.....	68
90.-Finantzaketa .....	68
91.-Finantza-elkarlana.....	69
<b>VI. TITULUA. SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA. PARTE HARTZEA .....</b>	<b>69</b>
<b>I. KAPITULUA. SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA.....</b>	<b>69</b>
92.-Administrazio publikoen arteko lankidetzak- eta koordinazio-eginbearra .....	69
93.-Inklusionarako Erakunde arteko Batzordea .....	70
94.-Inklusionarako Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak.....	70
<b>II. KAPITULUA. KONTSULTA ETA PARTE HARTZEA .....</b>	<b>71</b>
95.-Inklusionarako Euskal Kontseilua .....	71
96.-Inklusionarako Euskal Kontseiluaren eginkizunak .....	71
<b>VII. TITULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK .....</b>	<b>72</b>
97.-Arau-hausteak .....	72
98.-Erantzuleak .....	73
99.-Arau-hauste arinak.....	73
100.-Arau-hauste astunak .....	73
101.-Arau-hauste oso astunak .....	74
102.-Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea .....	75





103.-Arau-hausteak batera gertatzea eta jurisdikzio-ordena penalarekiko aldiberekotasuna .....	75
104.-Zehapenak .....	75
105.-Zehapenen graduazioa .....	76
106.-Preskripzio-araubidea .....	76
107.-Zehapen-prozedura .....	77
<b>XEDAPEN IRAGANKORRAK</b> .....	<b>78</b>
Lehenengoa. Indarreko araudiaren aplikazio iragankorra.....	78
Bigarrena. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araubide iragankorra. ....	78
Hirugarrena. Pentsiodunentzako errenta bermatuaren araubide iragankorra .....	78
Laugarrena. Gizarte-larrialdietarako laguntzen araubide iragankorra Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako konpentsazioari dagokionez.....	79
Bosgarrena. Prozeduren araubide iragankorra .....	79
<b>XEDAPEN GEHIGARRIAK</b> .....	<b>79</b>
Lehenengoa. Garapen-arauak.....	79
Bigarrena. Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlea .....	79
Hirugarrena. Zehapenen zenbatekoa eguneratzea .....	80
Laugarrena. Informazioa trukatzea .....	80
Bosgarrena. Hitzarmenak autonomia-erkidegoekin .....	80
Seigarrena. Politika fiskalak eta diru-sarrerak bermatzeko politikak .....	80
Zazpigarrena. 3/2011 Legearen 2. artikulua 3. atalaren aldaketa .....	80
<b>XEDAPEN INDARGABETZAILEA</b> .....	<b>81</b>
<b>AZKEN XEDAPENAK</b> .....	<b>81</b>
Lehenengoa. Aurrekontu-egokitzapenak .....	81
Bigarrena. Arau-garapena .....	81
Hirugarrena. Ordezko araubidea .....	82
Laugarrena. Legea indarrean sartzea.....	82





## ZIOEN AZALPENA

### I

1988ko irailaren 16an, Europako Parlamentuak pobreziaren aurkako borrokari buruzko ebazpen bat onartu zuen, eta botere publikoei eskatu zien gutxieneko errenta bermatu bat ezar zezaten herritar pobreenen gizarteratzea errazteko.

Ebazpen horren gomendioek azkar izan zuten onarpena Euskadin. Ildo horretatik, 1989an abiarazi zen Pobreziaren aurkako Plan Integrala, “Euskadi 93ko European” izeneko programaren barruan, oinarri izan baitzitzaien geroko ekintza batzuei, hala nola familiaren gutxieneko diru-sarrerari eta gizarte-larrialdietarako laguntzei.

Plan horren neurririk berritzaileenetako batekin hartutako esperientziak, familiaren gutxieneko diru-sarreraz ari gara, laster ekarri zuen neurri hori finkatzea garrantzizko gizarte-eskubide gisa. Hartara, 1990ean onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 2/1990 Legea, maiatzaren 3koa, Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrerari buruzkoa. Horrekin, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeek aurrea hartu zioten 1992ko ekainaren 24ko Gomendioari, gizarte-babeseko sistemetan baliabide eta prestazio nahiko izateari buruzko irizpide komunak gainezkoa bera, zeinean Kontseilu Europarrak estatu kideei gomendatu baitziren gutxieneko errenta bat ezartzea.

Diru-sarrerak bermatzeko sistema finkatzera etorri zen gero, finantza-alderditik bereziki, 12/1998 Legea, maiatzaren 22koa, gizarte bazterkeriaren aurkakoa. Alde batetik, lege horrek erantzuna eman zien Eusko Legebiltzarrak 1994ko ekainaren 21ean hartutako erabakian jaso zituen jarraibideei, gizarte-bazterketaren aurkako neurri espezifikoak jarduteko esparru arrunt batean sartzea eskatzen baitzuten, Pobreziaren aurkako Plan Integralak zuen ezohiko izaera alde batera utzita.

Bestetik, legeak lehenengoz bildu zuen batera aipatu planaren inguruan garatutako neurrien dimentsio elkarren osagarria. Horrela, amaiera eman zion ordura arte zegoen arau-barreiadurari, eta lege-testu bakarrean bildu zuen bazterketaren aurkako borrokara bideratutako jarduketaren multzoa. Bazterketaren aurkako tresna horiek ziren, hain zuzen ere, gizarteratzeko hitzarmenak, gizarteratzeko gutxieneko diru-sarrera —irauteko oinarritzko gastuei aurre egitera bideratutako prestazio ekonomikoa— eta gizarte-larrialdietarako laguntzak, etxebizitza eskuratzeari lotutako gizarte-arazoei aurre egitera zuzenduak batez ere.

Euskadiri dagokionez, pertsona orok behar adinako gizarte-babesa izateko eskubidea eta, horrekin batera, errenta-bermerako mekanismo izatekoa —aberastasuna benetan banatze aldera—, oinarritzko gizarte-eskubideen multzo handiago baten barruan txertatzen dira Gizarte Eskubideen Agiriari buruzko abenduaren 27ko 10/2000 Legean. Testu horren arabera, gizarte demokratiko ororen oinarritzko zutabea da gizarte-politika, zeinaren xede nagusietako bat da herritarren aurrerabide sozial eta ekonomikoa lortzearen alde ekitatez jarduteko ideal eta printzipioak bultzatzea.





Arau berak berresten duenez, gizarte-bazterketan dauden pertsona guztiek dute gizarteratzeko eta lan-merkatuan sartzeko eskubidea, gizarteratzeko hitzarmenaren bitartez, tresna hori eskubidea baliatzeko bidetzat hartzen baita, eta, era berean, herritarraren konpromisoaren erakusgarritzat, gizartean parte hartuko baitu aktiboki bere borondatez.

Gizarte Eskubideen Agiria hartu behar dugu oinarriztat, gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan diru-sarreraren bermearen eta gizarte-inklusioaren alorrean indarrean dagoen esparru juridikoan, zeinak —lege-testu hau onartu aurretik— arau hauek baitzituen: 18/2008 Legea abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatua gerora, eta bere garapen-arauak, hots, 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari buruzkoa, 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25ekoa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa, eta 4/2011 Dekretua, urtarrilaren 18koa, Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzkoa. Aurrekoari gaineratu behar zaio indarrean dirautela Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko Legearen garapen batzuek; bereziki, 2001eko otsailaren 14ko Agindua, oinarrizko errentaren titularrentzat eta gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena: arau horrek zehazten du oraindik enplegurako pizgarri horietarako hurbilketa Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistematan.

Gaur egun, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduak guztiz koherente zaie Europako erakundeetatik datozen orientabideei eta Europar Batasuneko estatu nagusiek garatutako politikari. Inklusiorako eta diru-sarrerak bermatzeko politikak argi eta garbi jarri dira aldi honetan Europar Batasunaren lehentasuntzat, zeina zehaztu baita, gutxieneko diru-sarreretara iristeko neurrien bitartez ez ezik, beste mekanismo batzuen bitartez ere, hala nola lan-merkatu inklusiboa sortzera bideratuak.

Horri buruz, gogoan hartu behar da zer gomendio egin dien Europar Batasunak estatu kideei inklusio aktiboaren politiken esparruan. Ildo horretatik doa Batzordearen 2008/867/EE Gomendia, 2008ko urriaren 3koa, zeinaren arabera ezinbestekoa baita estatu kideek beharrezko diren neurriak har ditzaten pertsonen eskubide hau bermatzeko: giza duintasunak eskatzen duen bizitza izan dezaten, baliabide eta gizarte-laguntza nahiko izatekoa, gizarte-bazterketari aurre egiteko tresna global eta koherente baten zati gisa. Hau ere badiu Gomendioak: neurriak hartu behar direla lan egiteko gai diren pertsonari bermatzeko benetako laguntza jasoko dutela bere lan-gaitasunari egokitzen zaion enplegu bat lortzeko, eta kalitatezko enpleguak sustatu behar direla bereziki.

Berrikiago, Europako Batzordearen 2017/761/EB Gomendia, 2017ko apirilaren 26koa, Gizarte Eskubideen Europako Zutabeari buruzkoa, etorri da hau esatera gizarte-babeserako Europako ereduari dagozkion beste alderdi batzuen artean: “baliabide nahikorik ez duen pertsona orok du gutxieneko errentaren prestazio egoki batzuetarako eskubidea, biziari guztietan bermatu dakion bizitza duin bat, bai eta gaikuntza-ondasun eta -zerbitzuetara iristea ere. Lan egiteko gai diren pertsonari dagokienez, gutxieneko errentaren prestazioekin batera, lan-merkatua (berriro) sartzeko pizgarriak baliatu behar dira”.





Euskal Autonomia Erkidegoak diru-sarrerak bermatzearen eta gizarte-inklusioren alorrean ezarritako ereduak hasiera-hasieratik hartu ditu aintzat Europako erakundeen gomendio eta jarraibideek dakartzaten oinarri kontzeptual horiek. Zehazki, euskal ereduak eskubide bikoitza du oinarri, eta horrekin batera, onuradunek gizarte-inklusiurako eta/edo lan-inklusiurako prozesuetan parte hartzea. Hartara, Euskadiko diru-sarrerak bermatzeko ereduak aitortu egiten du bai bizitzaren oinarritzko beharrianei aurre egiteko baliabide ekonomikoak izateko eskubidea, bai lan- edo gizarte-inklusiurako laguntza pertsonalizatua jasotzekoa, inklusio-hitzarmen baten bitartez.

Eredu horrek laguntza eman dio euskal gizartearen epe luzeko egonkortasun ekonomikoari eta gizarte-kohesioari, eta nabarmen jaitsi ditu egitura-pobreziaren adierazleak. Eskueran ditugun datuek erakusten dutenez, diru-sarrerak bermatzeko sistema eraginkorra izan da Euskadiko pobreziaren prebentzioan, eta Europako estatu askoren ongizate-tasen antzekoei, are handiagoei, eustea ahalbidetu du. Diru-sarrerak bermatzeko sistema tresna eraginkorra izan da, orobat, ongizate-maila hobetzeko lana izanda ere pobreziaren mugen barruan sartzen diren kolektiboei. Hori lortzeko, lan-merkatura iristeko baldintzak hobetu ez ezik, langile horien egoera optimizatu da, enplegurako laguntza, onura eta pizgarrien bitartez.

## II

Testuinguru hori abiapuntutzat hartuta, ezin da ahaztu krisi ekonomikoak, azken urteotan, baldintzatu egin duela diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte- eta lan-inklusiurako ezarri diren neurrien efikazia. Krisiak —herritarren lan- eta gizarte-baldintzetan izandako egitura aldaketekin batera, krisiaren ondorioetako bat izan baitira— ondorio negatiboak eragiten ditu oraindik pobreziaren eta gizarte-bazterketaren alorrean, eta, Euskadin ezarritako berme-sistemak neurri batean leundu baditu ere, biztanleriaren zati baten bizi-baldintzak okertzea ekarri du.

Langabezia edo desenplegua gora, langabezian luzaro daudenak gero eta gehiago, etorkinek baliabide pertsonalik ez, bazterketa-arriskuaren feminizazioa, pentsiodunak diru-eskuarte gutxiarekin: adibide batzuk baino ez dira babesaren premia duten pertsonen kopurua handitzea ekarri duten faktoreak erakusteko. Soldata txikiak dituzten pertsonen laguntzen ahalegintzen den sistema baten testuinguruan, errealitate hori areagotuz doa enplegu-era eskasenen hazkundearekin, hala aldi baterako kontratazioarekin nola denbora partzialekoarekin, kualifikazio txikiagoa duen biztanleriari nabarmenago eragiten baitie. Aurrekoari gaineratu behar zaizkio Estatuaren babes-sistemak aurre egin behar dien zailtasunak, sistema hori ez baita aski eraginkorra oinarritzko beharriaz asetzen.

Errealitate aldakor horrek arau malguak eskatzen ditu, populazio-talde jakin batzuen beharrianei erantzuna emateko modukoak, eta, gainera, bizitexeen eta familia-egituren atomizazioaren ondoriozko familia-eredu berriei egokituko zaizkienak. Prestazioen sistemak, ildo horretatik, aurrean du bizikidetzaren unitate guztien beharriaz asetzeko







erronka, zeinari nabarmen eragiten baitiote familia-definizioaren kontzepzioak berak azken hamarkadetan izan duen eraldaketak eta euskal gizartean sortuz eta garatuz joan diren familia- eta bizikidetzaren formen aniztasuna sendotu izanak.

Aurrekoak ezinbestean dakarkie egokitu beharra gizarte-babeseko neurriei, gutxieneko diru-sarrerak bermatzekoei eta inklusiokoei, helburutzat hartuta, alde batetik, diru-sarrerak bermatzeko sistemak eskaintzen dituen prestazioen estaldura eta irisgarritasuna hobetzea, eta, bestetik, euskal herritarrei irispidea erraztea gizarte-zerbitzuetara eta kalitatezko enplegura; batez ere, lan- eta gizarte-bizitzan moldatzeko zailtasunak dituztenei.

Euskal gizarteak izan dituen aldaketa ekonomiko, sozial eta demografikoen ondoriozko arazoez gain, kontuan hartu behar dira, halaber, beste beharrez batzuk, diru-sarreraren bermearen eta gizarte-inklusioren alorreko egungo arauen mugetatik sortuak. Gogoratzekoa da, bereziki, eskubidezko prestazio ekonomikoen kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura transferitzeko egokitzapen txiki batzuk gorabehera, oraindik indarrean dauden arauen gune zentralak kudeaketa-eredu hau hartu duela aintzat: 2011.era arte sistema kudeatu zuten gizarte-zerbitzuen alorreko erakundeak ardaztat hartzen dituenak. Horrek, diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko ereduaren oinarritzko printzipioak zalantzan jarri gabe, argi eta garbi eskatzen du kudeaketa-prozesu guztiak berrikustea.

Aurrekoarekin batera, gogoan hartu behar da zer ondorio izan duen diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskari-kopuruaren hazkundeak, krisiaren garapenari lotua bera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari presio handia ekarri baitio. Presio horrek agerian utzi du efizientzia handiagoz ekin behar zaiola prestazioen kudeaketari; batez ere, diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokion guztian.

Faktore horiek guztiak berariaz eragiten diete gai jakin batzuei, eta ekin egin behar zaie, irtenbide edo soluzio berriak aurkituko badira:

- Lehenik eta behin, krisiarekin batera etorri den eskari-hazkundeak agerian utzi du prestazioak izapidetzeko prozedurak erraztu beharra, elkarreragingarritasun-sistemak eta eskariak jaso eta bideratzeko prozesuak hobetuta. Arau berriek, beraz, kudeaketa egokia errazteko gai izan behar dute, aipatu printzipioak aintzat hartuta.
- Aurrekoari estu-estu lotuta, familia-egituren aniztasunak bizikidetzaren unitatearen kontzepturako hurbilketa erraztea galdatzen du. Hurbilketa berriak, funtsean, bizikidetzaren unitatearen eta etxebizitza edo bizitoki bakoitzean bizi diren pertsonen arteko asimilazioa ekarri behar du, haien arteko harreman pertsonalak edo familiarrak gorabehera. Arauek, baina, nahikoa malgutasun izan behar dute salbuespenezko egoera batzuetara ere egokitzeko, hots, etxebizitza edo bizitoki berean bizikidetzaren unitate bat baino gehiago dagoela jo behar denetara.
- Aipatu erraztea bereziki garrantzizkoa da prestazioen kudeaketak dakarren erronka nagusia gainditzeko: pertsonen beharrezanetan izan ohi diren egoera aldakorretara ahalik eta lasterren egokitzea. Egoera horiek ahalik eta gehien doitzeko zailtasunei lotzen zaizkien desorekek ondorio ekonomikoak



dituzte, nahi ez bezalakoak; adibidez, itzultzeko prozeduretan, bai Administrazioari dagokionez, bai prestazioen onuradunei dagokienez ere. Horiek horrela, behar-beharrezkoa da eredu normatibo bat, aipatu desorekak eta haien ondorioak minimizatuko dituen kudeaketa ahalbidetuko duena.

- Adierazitakoa bezalako kudeaketa-eredu eraginkor bati beharrezko zaio, era berean, prestazioak kontrolatzeko eta berrikusteko prozesuak arautzen dituzten elementu normatiboak hobetzea, elkarreragingarritasun-sistema egokiak oinarritzat hartu eta behar besteko azkartasunez gara daitezten. Euskal gizarteak diru-sarrerak bermatzeko politika aplikatzen egiten duen ahaleginak hau ere eskatzen du: ahalik eta efizientziarik handiena prestazioak zuzen kudeatzen, bai eta prestazioetara bidegabe iristea prebenitzearekin zerikusia duen guztian ere.
- Laneratzeko zailtasun handiagoa dagoen honetan, beharrezkoa dugu inklusio-eredu bat, ongi bermatuko duena lan-merkatura sartzeko aukera beti izango dela erakargarriago eta errentagarriago lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoak jasotzea baino. Horrek, nahitaez, enplegurako pizgarrien sistema birplanteatu beharra dakar, diru-sarrerak bermatzeko euskal ereduaren mekanismo esanguratsu eta eraginkorrenetako bat. Pizgarri horiekin izandako esperientziak erakusten duenez, komeni da jatorriko planteamendura itzultzea, 1998an ezarri baitzen, denbora-mugarik gabeko enplegu-pizgarriekin.
- Zailtasunak ikusi dira, halaber, diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzen duten pertsonen betekizun batzuk betetzen dituztela egiaztatzerakoan. Azpimarratzekoak dira, batez ere, bizikidetzaren unitatearen osaera zehazteari dagozkionak, unitate horren baliabide ekonomikoak argitzearen ingurukoak eta prestaziora iristeko ondare-mugen gainekoak, bai eta beste zailtasun batzuk ere, prestazioen onuradunek benetan non bizi diren zehaztearekin eta Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko mugikortasun geografikoarekin zerikusia dutenak. Horiei guztiei ekin behar zaie arauak berrikustean, herritarrek dituzten beharrezkoak arreta egokia maximizatu dadin.
- Gorago adierazitakoarekin zerikusia duenez nolabait, adibidez ondare-elementu batzuk diru bihurtzeko benetako aukerari dagokionez, baina, baita ere, zenbatekoak finkatzeari edo etendura-prozedurari dagozkion alderdietan, ikusten da badaudela alderdi batzuk, pertsona-talde jakin batzuei babes egokia emateko aukera mugatzen dutenak.
- Azkenik, prestazioen eredia birdefinitu behar da, diru-sarrerak bermatzeko Euskadiko sistema doitzeko etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen alorreko Euskadiko legeria berriaren arabera. Zehazki, gizarte-larrialdietarako laguntzen eginkizuna birdefinitu behar da herritarren babes ekonomikorako eredu orokorraren barruan.





### III

Adierazitakoa kontuan hartuta, bereziki egungo esparru sozioekonomikoa eta aurreikus daitekeena, bai eta kudeaketa-ereduaren aldaketa ere, eskubidezko prestazio ekonomikoen kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura transferitzeak ekarri zuena alegia, beharrezko da Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema birformulatzea. Sistema horretako neurri guztiak egokitu beharra dakar horrek, prestazioen estaldura hobetzeko modua izan dadin, bai eta urteen joanean agerian geratu diren akatsak konpontzekoa ere. Hain zuzen ere, helburu hauek erdietsi nahi dira:

- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema sistema autonomo gisa eguneratzea, osotasun koherente eta integratu bat eratzen duela. Sistema hori enplegu-zerbitzuen barruan txertatuko da, inklusiorako politikak zeharkakotasun-ikuspegia badu ere, eta beste sistema sektorial batzuek ere izango dute zerikusirik, hala nola gizarte-zerbitzuek, osasunak, hezkuntzak eta etxebizitzak.
- Berriazko neurri eta irtenbideekin erantzutea euskal gizarteak gaur egun bizi duen testuinguru sozioekonomikotik sortutako beharrezanezi, eta, bereziki, prestazioen onuradunek lan-merkatura eta gizarte-integratziora iristeko aukerak bultzatu eta hobetzeko neurriak ezartzea. Aurreko horrek hau eskatzen du, bereziki: inklusio-hitzarmenen kudeaketarekin zerikusia duten arau alderdiak berrikustea eta berriz aztertzea enplegurako pizgarrien sistema, hasieran pentsatu bezala funtziona dezan, hau da, denbora-mugei lotu gabe bere aplikazioan.
- Herritarrengandik hurbilago dagoen sistema bat ezartzea, herritarraren bilakaerari buruzko informazio gehiago lortzea ez ezik, herritarrari bere beharrezan zehatzen arabera laguntza pertsonalizatua eskuratzeko aukera emango diona, sistemaren tresna guztiak era konbinatuan aplikatuta.
- Eskaintako prestazioen estaldura hobetzea, dauden premiei erantzun egokia emateko moduan:

Horrek esan nahi du, alde batetik, arreta egin behar zaiela bizitexarean barruan sor daitezkeen familia-egoera eta harreman juridiko desberdinei, ongi berrmatuta bizikidetzaren unitateko kideen tratamendu-berdintasuna eta prestazioari eustek dakartzan ardurekiko solidaritatea. Ildo horretatik, irizpide batzuk sartu behar dira, aldi baterako arreta emate aldera salbuespenezko inguruabarrak medio bizilekua beste bizikidetzaren unitate batzuekin partekatu behar duten unitateei. Era berean, gogoan eutsi behar zaie pentsiodunak dituzten bizikidetzaren unitateen beharrezan espezifikoiei.

Beste alde batetik, zenbatekoak zehazteko mekanismoa berrikusi behar da, unitateko kideen beharrezan espezifikoetara eta unitatearen beraren oinarritzko konfiguratziora egokitzeko.

- Prestazioen kudeaketa hobetzen aurrera egiteko bideak irekitzea, prozeduren garapenean epeak beteko direla bermatze aldera, bai prestazioa





ematearekin zerikusia duten faseetan, bai prestazioaren berrikuspenari lotutakoetan.

- Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema osatzen duten prestazio guztien eginkizuna zedarritzea. Bereziki zehaztu behar da zer eginkizun bete behar duten, gaur egun, gizarte-larrialdietarako laguntzek, etxebizitzako prestazio ekonomikoaren sistemaren birformulazioaren testuinguruan.

#### IV

Euskal Herrirako Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, euskal aginte publikoek, beren eskumenen eremuan, hartu beharreko neurriak hartuko dituzte herritarren eta herritarrok osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna benetakoak izan daitezen, horretarako baldintzak sustatuta eta kendu beharreko oztopoak kenduta; horrekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa izango du gizarte-laguntzaren arloan, Espainiako Konstituzioaren 148.1.20 artikuluan esaten dena oinarri hartuta.

Eskumen horietaz baliatuta, Eusko Legebiltzarrak Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legea onartu zuen, zegokion lurralde-eremuan pertsonaren bazterketari nahiz gizarte- edo lan-arloko bazterketari aurre egiteko beharrezkoak ziren jarduerak bultzatu eta prestazio ekonomikoak eta gizarte-arloko tresnak arautzeko, eta bizimodu independentea izateko behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez zutenen inklusioaren alde. Horren ostean, eta berrikiago, legebiltzar berak, sistema progresiboki denengana iristea lortzeko eta gizarte-arloko premiek izandako bilakaerari politika publikoen bidez hobeto erantzungo zitzaiela bermatzeko, abenduaren 27ko 10/2000 Legea onartu zuen, Gizarte Eskubideen Agiriarena, eta, horri esker, oinarritzko errenta deiturikoa euskal babes-sisteman txertatu zen.

Azken urteotako testuinguru mudakorra dela medio, behin baino gehiagotan aldatu da oinarritzko errenta horretarako ezarritako erregulazioa, harik eta 18/2008 Legea abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa onartu arte. Arau horrek berriro ekarri zuen lege-testu bakarrera gizarte- eta lan-bazterketaren arriskua prebenitzeko behar ziren aurreikuspen ekonomikoak eta tresna sozialak, lehenago Gizarte Bazterkeriaren aurkako maiatzaren 22ko 12/1998 Legean araututa baitzeuden.

Azaroaren 24ko 4/2011 Legeak ekarri zuen aldaketa partzialaren ondoren, Eusko Legebiltzarraren osoko bilkura ere jabetu zen krisiaren ondoriozko errealitate sozioekonomikora egokitu beharraz.

Lege honek dakarren formulazio berriak funtsezko aldaketa batzuk ekarri ditu aurreko araeekiko:

- Lehenik eta behin, eskubidezko prestazio ekonomikoari dagokienez, diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera ezarri da pentsiodunentzako errenta





bermatua, pentsiodunen gune baten barruko pertsoneri zuzendua, baldin eta diru-sarrerara nahiko ez badute oinarrizko beharrezan lotutako gastuei aurre egiteko.

- Beste definizio bat eman zaio bizikidetzaren kontzeptuari, halako moldez non, oro har, helbide berean bizi diren pertsona guztiak bizikidetzaren berekoak izango diren. Hartara, elementu batzuk sartzen dira, ahalik eta gehien parekatzeko moduan bizikidetzaren ideia eta pertsonak helbide berean elkarrekin bizi.

Hurbilketa hori, dena den, errealitate honi ere egokitzen zaio: salbuespenezko inguruabar batzuetan, behartuta bizi direla batera pertsona batzuk. Legeak, horrenbestez, salbuespenezko bizikidetzaren aurrekusi ditu, helbide beraren barruan bereziak, aldi baterako baino ez bada ere.

- Era berean, aldatu egin dira figura hauen definizioak: prestazioaren titularra, onuraduna eta hartzailea. Helburua izan da azalpen-argitasun handiagoa ematea testuari, eta homogeneoago egitea beste lege-testu batzuetan ageri diren definizioekiko. Aldaketa horrekin, bada, oinarriak jarri nahi izan dira, onuradun guztiek, eta ez bakarrik prestazioaren titularrak, bete ditzaten arauak ezarritako betebeharrak.

- Babesa hobetze aldera, aldatu egiten dira eskubidezko prestazio ekonomikoetara iristeko eta prestazio ekonomikoari eusteko baldintzak, eta, erroldatzeari eta benetako bizilekuari dagokienez, bi urtera jaisten da prestazio horiei heltzeko eskatzen den gutxiengo denbora, baldin eta bizikidetzaren unitateek edo pentsiodunen guneek ardurapean badituzte adingabeak edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.


Europak gaur egun bizi duen egoera humanitarioari erantzuna ematearren, egokitzen jo da nazioarteko babesa edo asiloa eskatzen dutenak salbuestea gutxiengo erroldatze-aldia betetzetik eta nahitaez eskatzen diren dokumentu batzuk aurkeztu beharretik.

- Babesa behar bezala egokitze biziaren errealitate desberdinetara, eredu berri bat taxutu da eskubidezko prestazio ekonomikoaren gehieneko errenta bermatua zehazteko, bai eta gizarte-larrialdietarako laguntzetarako erreferentziako balio ekonomikoa argitzeko ere. Eredu horrek bi euskarri ditu: alde batetik, oinarrizko zenbateko bat, Euskadiko gutxiengoaren gastu arruntaren adierazleak zehaztua, eta, bestetik, gehigarriko osagarriak.

Euskadiko gutxiengoaren gastu adierazleak hau islatzen du: zer balio zenbatesten zaien gutxiengoaren gastu batzuei; hain zuzen ere, etxebizitza edo bizitoki independente bat mantentzearekin zerikusia duten oinarrizko beharrezan arruntei bakarka aurre egin nahi dien edozein pertsona izango lituzkeenei.

Oinarrizko zenbatekoaren balioa alda daiteke, helbide beraren barruan zenbat bizikidetzaren unitatek duen prestaziorako eskubidea.

Ereduak banakako osagarriak aurrekusi ditu, hala heldu bakoitzarentzat nola adingabe bakoitzarentzat, bai eta bizikidetzaren ezaugarriekin zerikusia duten beste osagarri batzuk ere. Banakako osagarriak partaidetza-





koefiziente bat ezar dakieke, kide bakoitzak betekizunak noraino betetzen dituen kontuan hartuta.

- Eskubidezko prestazio ekonomikoen gehieneko errenta bermatuari inplikazio aktiboaren koefiziente bat ezarri ahal izango zaio, babes egokia bermatzeko ezarri baita. Horrenbestez, kendu egiten dira betebeharrak ez betetzearen ondoriozko etendurak, eta, haien ordean, beste sistema bat ezartzen da, bizikidetzaren unitatea edo pentsiodunen gunea osatzen duten pertsona guztien inklusio-konpromisoa erakusten duena. Onuragarriagoa da sistema hori; izan ere, ez-betetzetik gertatuz gero, unitateari edo guneari ez zaio nahitaez kenduko oinarritzko euskarri zaion zenbateko osoa; aitzitik, egindako ez-betetzearen arabera eragingo zaio zenbateko horri.
- Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legeak indarra hartu duenez, kendu egiten da etxebizitzako prestazio osagarria, 18/2008 Legeak sartu baitzuen. Horrenbestez, hauek dira Bermeen Euskal Sistemaren barruko prestazio ekonomikoak: eskubidezko prestazio ekonomikoak —diru-sarrerak bermatzeko errenta eta pentsiodunentzako errenta bermatua— eta gizarte-larrialdietarako laguntzak. Azken laguntza horiek diru-laguntzen izaera dute, eta ezarritako prestazio-esparruaren barruan finkatzen dira.
- Arauak tratamendu berria ematen dio prestazioei heltzeko baliabideen zehaztapenari, ondarea zenbatesteari dagokionez batik bat, babes hobea eman nahirik premian dauden pertsonen.
- Berme eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruko prestazio ekonomikoen izaerak berak ekar lezake bidegabeki jasotako kopuruak sortzea, eta erreklamatu egin behar dira. Onuradunei ekar liezaiekeen eragin negatiboa mugatze aldera, graduatu egin dira preskripzioaren mugak. Gainera, prestazioaren onuradun guztiei zabaltzen zaie itzulketaren erantzukizuna.
- Azkenik, beharrezko iritzi zaio arau zaharrak ezarritako zehapen-araubidea erreformatzeari, eraginkorragoa izan dadin, eta Berme eta Inklusiorako Euskal Sistemaren errealitateari aplikatzen errazago. Hartara, birbideratu egiten da arau-hausteen sistema, halako moldez non kasu hauek tipifikatzen diren: prestazioak jasotzeko dolozko, iruzurrezko edo zabarkeriazko jarduketak dituztenak.

Ildo beretik, aldaketaren bitartez, xedapen batzuk sartu dira arau erregulatzailan, zehapen-araubidea hauei hedatze aldera: nahita, ekintzaz zein omisioz, arau-hauste tipifikatuetan erortzen direnei edota arau-hauste horiek egiteko ezinbesteko laguntza eman dutenei. Erantzukizuna aurreikusi da, baita ere, prestazioaren onuradun izan gabe, prestazioaren onuradunei jarduketa tipifikatuetan laguntza eman dietenei.





## V

Legearen egiturari eta edukiei dagokienez, testuak 107 artikulua ditu —7 titulutan banatuta—, 5 xedapen iragankor, 7 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta 4 azken xedapen.

Hauek zerrendatzen dira I. tituluan: xedea, eremu subjektiboa, oinarrizko printzipioak, kontzeptu batzuen definizioak eta Euskadin gutxieneko gastu arrunten adierazlea sortzea, jaso behar diren kopuruak zehazteko baliatuko baita adierazle hori.

Helburuen barruan, lege honen asmo batzuk garatzen dira, eduki sozialekoak nagusiki, hala nola herritarrentzako berme bat, herritar guztiak irits daitezen Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruko prestazio ekonomikoetara eta gizarte- eta lan-inklusiorako tresnetara. Helburu horiek, 3. artikulua zerrendatutako printzipioekin batera, lege hau aplikatuko duten eragile guztiek hartu behar dituzte kontuan, eta ez dira xedapen programatiko hustzat hartu behar, baizik eta legearen benetako printzipio eratzailerako gisa, hura interpretatzeko ere balio baitute.

Beste alde batetik, prestazio ekonomikoak eta gizarte- eta lan-inklusiorako tresnak izendatzen dira Diru-sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren funtsezko osagai, eta ondorengo xedapenetan garatzen da haien helmen zehatza.

Titulu honetan garatzen dira kontzeptu hauek ere: etxebizitza edo bizitokia, helbidea eta bizikidetzaren unitatea. Era berean, titular, onuradun eta jasotzailearen kontzeptuak zehazten dira, eta haien arteko diferentziak argitzen. Azkenik, gutxieneko gastu arrunten adierazlea sortzen da Euskadin.

II. tituluak I. kapituluan zehazten dituzte legean definitzen diren prestazio ekonomiko nagusiak: diru-sarrerak bermatzeko errenta, pentsiodunentzako errenta bermatua —eskubidezko prestazio ekonomikoen barruan— eta gizarte-larrialdietarako laguntzak —diru-laguntzen erako laguntza ekonomikoen barruan—. Hartara, titulu horren barruan zehazten dira, prestazio bakoitzerako, iristeko eta eusteko betekizunak, prestazioen titularren eta onuradunen betebeharrak eta zenbatekoa finkatzeko sistema. Era berean, eskubidezko prestazio ekonomikoen xedapen komunak zehazten dira.

II. kapituluan zehazten dira prestazio ekonomiko guztientzako arau erkideak, kontuan hartuta bai eskubidezko prestazio ekonomikoak bai diru-laguntzen erako laguntza ekonomikoak: Baliabideak nola hartzen diren, prestazioen araubide ekonomikoa, bateraezintasunen araubidea eta prozedurako arau erkideak.

III. tituluan arautzen dira prestazioen hartzaileen inklusioa gauzatzeko tresnak.

I. kapituluan ekin zaie inklusio-hitzarmenaren edukiari, ezaugarriari eta erregulazioari, hitzarmen hori gizarte- eta lan-inklusiorako tresna den aldetik. Era berean, hitzarmena berrikusi, aldatu eta eteteko arrazoiak garatzen dira, hitzarmenari egingo zaizkion aldizkako ebaluazioen arabera, edota alderdien arteko akordioaren edo ezinbesteko kasuen arabera. Hitzarmena suntsiarazteko kasuak ere aurreikusi dira, bai eta hura azkentzekoak ere, funtsean: hitzarmeneko helburuak erdiestea, hartzaileak bereganatutako betebeharrak ez betetzea, alderdien adostasuna edo hitzartutako epea amaitzea.







Beste alde batetik, II. kapituluan arautzen dira gizarte- eta lan-inklusioko programak eta zerbitzuak. Aurreikusten denez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusioko Euskal Sistemak koordinatu egin beharko dituzte planifikatzeko dituzten lanabesak eta horien barruko jarduerak.

Era berean, beste jarduera-eremu batzuetako gizarte-inklusioko programa eta zerbitzuei dagokienez, abiapuntutzat hartuta gizarte-bazterketaren arrazoiak multidimentsionalak direla, agindu bat ematen zaie Euskadiko botere publikoei, era koordinatuan har ditzaten neurriak gizarte-inklusioren helburuak alor guztietan betetze aldera, bereziki aipatuta hezkuntzaren, enpleguaren, gizarte-zerbitzuen, osasunaren eta etxebizitzako politika publikoaren sistemen esparrua.

IV. tituluan ezarri dira Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusioko Euskal Sistemaren plangintzarako eta garapenerako oinarriak. Inklusioko Euskal Plana honela definitzen da: tresna bat, administrazio eskudunen jarduera orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak jasotzen dituena.

Ildo horretatik, plangintza eratzen duten printzipioak ezartzen dira, eta, azpimarratzen denez, plangintzak kontuan hartu beharko ditu hala alderdi geografikoak nola denborari dagozkionak, eta, bereziki, aurrekontu-zuzkidura aski sartu beharko da aurrekontu nagusietan.

Tresna tekniko erkideak garatzen dira, homogeneotasuna bermatzeko gizarte-inklusioren alorrean esku hartzeko irizpideei. Arretaren kalitatea hobetu, profesionalak prestatu eta ikertzeko aurreikuspen batzuk ere badakartza.

V. tituluak I. kapituluan ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eskumenak diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioren alorrean, eta hiru maila bereizten ditu: Eusko Jaurlaritzaren eskumenak, foru-diputazioenak eta udalenak.

Eskumen-banaketa horrekin lortu nahi dena da Euskal Autonomia Erkidegoak garatutako jarduera koordinatua eta eraginkorra izan dadin ahalik eta alor gehienetan, herritarrengana hurbilduta foru-diputazioei eta udalei eman zaizkien eginkizunen kasuan.

II. kapituluan arautzen dira prestazioen finantzaketa eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu-kontsignazioa.

VI. tituluak sailen eta administrazioen arteko nahitaezko lankidetzaren arautzen du, legeak aurreikusitako helburuak lortzeko ezinbesteko bitarteko gisa.

Helburu horretarako arautzen da Inklusioko Erakunde arteko Batzordea, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen arteko lankidetzaren organismo goren gisa. Gainera, Inklusioko Euskal Kontseilua taxutzen da aholku emateko eta parte hartzeko organo gisa.

Azkenik, VII. tituluan garatzen da zehapen-araubidea.

Arau-haustetzat jotzen dira, portaera aktiboak ez ezik, baita omisiboak ere, eta elementu subjektiboak ere eskatzen da, dela dolozkoa dela zabarkeriazkoa, hala badagokio. Zehapenen mailakatzeari egiten da: arinak, astunak eta oso astunak, eragindako galera ekonomikoari begiratuta, bai eta portaeraren garrantzi edo larritasunari ere.







Bukaeran, indarreko araudia aldi batean aplikatuko dela zehazteaz gainera, lege hau erregelamendu bidez garatzen ez den artean hala gertatuko baita, xedapen osagarri batzuk aurreikusi dira, zenbait kontu zehatz arautzeko, hala nola zehapenen zenbatekoak eguneratzea, edo legea ezarriko dela ziurtatzeko nahiz legearen erregelamenduzko garapena osatzeko agindu batzuk.





## I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### 1-. Xedea eta eremua

Lege honen xedea da Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, prestazio ekonomikoak eta bestelako tresnak izateko eskubidea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterketa-arriskua prebenitzen, bai bazterketa pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai inklusioa errazten.

### 2-. Helburuak

Hauek dira lege honen bidez lortu nahi diren helburu nagusiak:

- Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema eratzea, sistema autonomo gisa, zeinen kudeaketan parte hartzen baitu Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, beste administrazio publiko batzuekin lankidetzan.
- Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren funtzionamendurako printzipioak eta egituraren oinarriak jartzea, eskainitako babesak gero eta zabalagoa izan dadin, ekonomia-, gizarte- eta lan-arloko zenbait tresna elkarri lotuta aplikatzearen ondorioz, guztiek ere inklusioa dutela helburu.
- Herritarrei bermatzea irispidea izango dutela Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan diren prestazio ekonomikoetara eta gizarte- eta lan-inklusioko tresnetera; betiere, berdintasun- eta ekitate-irizpideak betez, eta autonomia-erkidegoaren lurralde-eremu osoan era homogeneoan beteko dela ziurtatzeko beharrezko diren neurriak hartuta.
- Eskubidezko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten onuradun enplegarriak lan-merkatara irits daitezen bultzatzea.
- Gizarte-inklusioko erraztea Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren onuradun guztiei.

### 3-.Oinarrizko printzipioak

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak printzipio hauek beteko ditu:

- a. Eskubide bikoitza. Printzipio hori dela-eta, bi eskubide aitortzen zaizkie pertsonari: bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko behar beste baliabide ekonomiko eskuratzeko eskubidea, baita gizarte- eta lan-inklusioko bideratutako laguntza pertsonalizatuak izateko eskubidea ere.
- b. Erantzukizun publikoa. Administrazio publikoek izango dute ardura, bakoitzak bere eskumenen barruan diharduela, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako



Euskal Sistemaren barruko prestazio ekonomikoak diruz hornitu eta gizarte- eta lan-inklusionarako tresnak jartzeko.

- c. Unibertsaltasuna. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemak unibertsaltasun-bokazioa izango du, eta, sistema horren barruan, euskal administrazio publikoek bermatu beharko dute, bakoitzak bere eskumen-eremuan diharduela, baldintzak betetzen dituzten guztiek irispidea dutela prestazio ekonomikoetara eta lege honek eskubidetzat jotako gainerako inklusion-errietara.
- d. Berdintasuna eta ekitatea zerbitzu eta prestazioak eskuratu eta aplikatzeko. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemaren esparruan, euskal administrazio publikoek bermatu beharko dute prestazio ekonomikoetarako eta gizarte- eta lan-inklusionara bideratutako tresnetarako irispidea, baldintza pertsonal edo sozialei lotutako inongo diskriminaziorik gabe, eta era homogeneoan autonomia-erkidegoko lurralde guztian.
- e. Genero-ikuspegia sartzea. Gainerako euskal politika publikoekiko koherentziaz, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemak orokorrean ezberdintasunak desagerrarazten eta emakumeen eta gizonen berdintasuna bultzatzen lagunduko du, eta, bereziki, pobrezia emakumeengan gizonengan baino eragin handiagoa izan ez dezan prebentzioa egiten eta eragin handiago hori arintzen.
- f. Elkartasuna. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemak herritar guztien lankidetzaren sustatuko du ongizate orokorra bermatzeko behar diren baliabideak sor daitezela, eta errenten birbanaketa hobetzeko neurriak ezarriko ditu gizarte-kohesioa sustatzeko.
- g. Gizarte-politikak aktibatzea eta enplegua errentagarri egitea. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemak, aintzat hartuta prestakuntzarako eta lan-orientazio- eta -bitartekaritzarako neurriak, gizarte-enplegu babestua edo kontrataziorako laguntzak, formula jakin batzuk ere ezarriko ditu, lan-merkatuan sartzeko aukera erakargarriagoa eta errentagarriagoa izan dadin lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoak jasotze hutsa baino.
- h. Inklusionarako politikaren zeharkakotasuna. Diru-sarrerak bermatzeko neurriak eta enplegua, inklusionarako tresna zentral gisa hartuta, beste sistema sektorial batzuen esku-hartzearekin osatu behar dira, hala nola gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza eta etxebizitza.
- i. Arreta pertsonalizatu eta integrala eta arretaren jarraitutasuna. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemak arreta pertsonalizatua eman behar du, pertsona eta/edo bizikidetzaren unitate bakoitzaren premia berezietara egokitua eta haien egoeraren diagnosi integralean oinarritua. Halaber, arretaren jarraitutasuna bermatu beharko du.
- j. Efizientzia eta efikazia. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusionarako Euskal Sistemaren barruko euskal administrazio publikoek kudeaketa-prozedura egokiak erabiliko dituzte, herritarrentzako babesa eta arreta hobea bermatuko dutenak. Horretarako, etengabeko hobekuntza ziurtatuko duten tresnak eta



prozedurak baliatuko dituzte, bere lanean ahalik eta efizientzia eta efikaziarik handiena lortzeko.

- k. Baliabideen kalitatea eta optimizazioa. Antolatuko diren neurriak aplikatzerakoan, irizpide hauek bete beharko dira: kalitatea, baliabideen aprobetxamendu hoberena eta prozeduren etengabeko hobekuntza. Horretarako, balorazio-tresna komunak ezarriko dira, informazioaren jario erraza eta datuen konparagarritasuna bermatzeko modukoak; orobat, emaitzen jarraipena, ebaluazioa eta fiskalizazioa egiteko aukera eman beharko dute, inklusio-politikaren aplikazioa justua eta arduratsua izateko bidea sendotze aldera.
- l. Euskal administrazio guztien koordinazioa eta inplikazioa. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan, euskal administrazio publikoek koordinatuta eta elkarlanean jardungo dute, erakundeen arteko adostasuna lortu behar baita, herritarrek beren eskubideak baliatzea bermatzeko neurri egokienak errazago har daitezten.
- m. Parte-hartzea. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan, gizarte- eta/edo lan-inklusioko prozesuetan parte-hartzea sustatu eta bultzatuko dute euskal administrazio publikoek; bai erabiltzaileen beren parte-hartzea, baita, orokorrean, gizarte-erakundeena eta herritar guztiena ere. Horretarako, gizarte- eta lan-inklusioko prozesuetan diharduten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak inklusiorako agente laguntzailetzat aitortu daitezke erregelamendu bidez ezartzen diren baldintzetan.
- n. Konpromisoa. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak beharrezko du herritarrek konpromisoa har dezatela inklusio-prozesuetan erabakitako jarduerekin, bai eta herritarren lankidetzaren ere, eskubide bikoitzera iristeko behar den informazioa egiaztatzeko.

#### **4.-Arreta-eredua**

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak arreta pertsonalizatu eta hurbilaren ereduari egingo dio men, arretaren ikuspuntu komunitarioa landuz une oro, bai jarduteko printzipio orokorretan, bai ekintza-tresnak diseinatu eta planifikatzerakoan, bai bere esku-hartzeen praktikan. Esparru horretan, lehentasuna emango die prebentzio-ekintzei; egoki eta posible den guztietan, saiatuko da arreta pertsona bakoitzari bere ohiko lekuetan eman dakion, eta bermatuko du esku-hartzeak beti pertsonaren edo bizikidetzaren unitatearen premien arabera izango direla, eta, halaber, esku-hartze horiek integralak izango direla eta arreta-ibilbideei jarraipena emango zaiela.





## **5.-Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren oinarriko osagaiak**

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak bi osagai funtsezko izango ditu:

- a. Prestazio ekonomikoak.
- b. Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako tresnak.

## **6.-Prestazio ekonomikoak.**

1. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan jasotako prestazio ekonomikoen sailkapena hau da:

- a. Eskubidezko prestazio ekonomikoak.
- b. Diru-laguntzen izaerako laguntza ekonomikoak.

2. Hauek dira Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan jasotako eskubidezko prestazio ekonomikoak:

- a. Diru-sarrerak bermatzeko errenta.
- b. Pentsiodunentzako errenta bermatua.

Eskubidezko prestazio ekonomikoak eskubide subjektiboak dira prestazio ekonomiko horiei heltzeko berariaz araututako betekizunak betetzen dituzten guztientzat. 27. artikuluan definitutako modalitateetakoren batekoak izango dira.

Lege honetan xedatuaren ondorioetarako, hau da pentsioduna: kotizaziopeko erretiro-, ezintasun iraunkorerako-, alargun- pentsioen onuraduna, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruarena, ezintasun edo erretiroarengatiko kotizazio gabeko pentsioarena, edo % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duen ardurapeko seme-alabarengatiko prestazio baten kausaduna.

3. Diru-laguntzen izaerako laguntza ekonomikoak dagokienez, gizarte-larrialdietarako laguntzak izango dira, hau da, gizarte-bazterketa prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko behar diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko nahiko baliabiderik ez duten pertsonentzako laguntzak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman ahal izateko, gizarte-zerbitzuek benetako eta urgentziatzko premia-egoera dagoela egiaztatu beharko dute beti; gainera, diru-laguntza direnez, egiaztatu beharko da helburu horretarako kreditua kontsignatu dela Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan urtero kontsignatuko dira prestazio horren eskariari erantzuteko aurreikusitako zenbatekoak.





## **7.-Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako tresnak**

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan, honako hauek izango dira bazterketaren prebentziora eta gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako tresnak:

- a. Inklusio-hitzarmena oinarrizko tresna da gizarte- eta lan-inklusioko beharrezkotzat jotzen diren era bateko eta besteko ekintzen multzoa antolatzeko.
- b. Esku hartzeko berriazko neurriak gizarte-babeseko hainbat alorrek antolatutako programak, zerbitzuak edo zentroak izan daitezke; bereziki, gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzuek, osasun-zerbitzuek, hezkuntza-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek era autonomoan antolatu eta definituak. Hauek era konbinatuan aplika daitezke.

## **8.-Etxebizitza edo bizitokia**

1. Lege honen ondorioetarako, etxebizitza edo bizitokitza hartuko da ohiko bizilekutzat erabil daitekeen esparru fisiko oro.
2. Era berean, etxebizitza edo bizitokitza joko dira erregelamenduz zehaztuko diren establezimendu kolektiboetan integratutako esparru fisikoak.
3. Etxebizitza edo bizitokia helbidea izango da bertan benetan bizi denean pertsona bat edo pertsona-talde bat batera, agintaritza edo araubide erkide baten mende egon zein ez.

## **9.-Bizikidetzaren unitatea**

1. Lege honen ondorioetarako, helbide berean batera bizi diren pertsona guztiek bizikidetzaren unitatea osatzen dute, edozein dela haien arteko harreman juridiko, afektibo edo familiarraren forma eta bizikidetzaren ekarri duen egoera.

Helbide batean nor bizi den zehazteko, udal-errolak aurreikusitakoari begiratuko zaio. Helbide batean bizi diren pertsona guztiak egongo dira udal-errolan inskribatuta, eta, era berean, udal-errondanez ingo da jaso bertan bizi ez den pertsonarik. Dena den, onartuko da errolak aurreikusitakoaren kontrako probarik.

2. Aurreko apartatuak dioena gorabehera, helbide berean beste pertsona batzuekin batera bizita ere, bizikidetzaren unitate desberdinak elkarbizi litezke, baldin eta salbuespeneko bizikidetzaren unitate baten existentzia onartzen bada; halakoetan, helbide berean batera bizi ahalko dira bizikidetzaren unitate arruntak eta salbuespeneko bizikidetzaren unitateak.

Ilido horretatik, salbuespeneko bizikidetzaren unitateetat hartu ahal izango dira hauek:

- a. Arrazoi hauetako bat dela eta helbidez aldatu beharra izan duten pertsonak edo pertsona-taldeak:





- i. Familiaren barruko tratu txarren biktima izatea.

Lege honen ondorioetarako, familiaren eremuko tratu txarren biktimatzat hartuko da Zigor Kodearen 10/1995 Lege Organikoaren 153 eta 172.2 artikuluetan jasotako delitutzat tipifika daitezkeen egintzen edo antzeko beste batzuen biktima, are prozedura instrukzio-fasean dagoenean organo judizial baten aurrean edo ikerketa-fasean beste agintaritza eskudun batzuen aurrean.

- ii. Utzarazpena, hipoteka-exekuzioa edo etxebizitza uztea bizigarritasun- edo irisgarritasun-arazoengatik.
- iii. Banantzea, dibortzioa edo baja hartzea Izatezko Bikoteen Erregistroan, baldin eta prestazioari heltzeko betekizunak betetzen badira.
- iv. Bizitza-proiektu berri bati ekitea beste helbide batean ardurapeko adingabeekin edo mendekotasun egoeran dauden ardurapeko pertsonekin, baldin eta prestazioari heltzeko betekizunak betetzen badira.

Lege honen ondorioetarako, mendekotasun-egoeran dagoen pertsonatzat hartuko da % 45 edo gehiagoko desgaitasun-kalifikazioa duena, edo II. graduko 1. maila edo handiagoko mendekotasun-kalifikazioa duena Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak xedatu duenaren arabera.

- b. Helbidez aldatu zein ez, prestazioari heltzeko betekizunak bete eta egoera hauetakoren batean dauden pertsonak:
  - i. Lehenengo semea edo alaba eduki edo adoptatu dutenak.
  - ii. Mendekotasun-egoeran dauden pertsonak hartu dituztenak ardurapean.
- c. Erregelamenduz zehazten den salbuespenezko beste edozein egoeraren ondoriozkoak.

Salbuespenezko bizikidetza-unitatea aldi baterako izango da, inoiz ez 24 hilabete baino luzeago, salbu eta erregelamenduz zehazten diren kasuetan.

Helbide berean bizi badira ere, salbuespenezko bizikidetza-unitate bateko kide ez diren gainerako pertsonak, bizikidetza-unitate arruntzat joko dira.

3. Helbide berean batera bizi litezkeen bizikidetza-unitate desberdinen osaera zehazteko, arau hauei begiratu beharko zaie gainera:

- Pertsona bat edo pertsona-talde bat helbidez aldatzen bada bizikidetza-unitate bat baino gehiago duen beste helbide batera, bizikidetza-unitate arruntean sartuko da, berez salbuespenezko bizikidetza-unitatea osatzen ez badu.
- Pertsona bat edo pertsona-talde bat helbidez aldatzen bada salbuespenezko bizikidetza-unitateak baino ez dituen beste helbide batera, aldatzen direnek berez osatuko dute bizikidetza-unitate arrunt bat.
- Salbuespenezko bizikidetza-unitate berean sartuko dira batera bizi diren pertsonak, bai eta beste hauek ere: salbuespenezkotasun-aldia hasi aurreko



urtean hil bereko gutxienez hamabost egunez bizitakoak salbuespenezko bizikidetz-unitateko kideren batekin.

- Halaber, salbuespenezko bizikidetz-unitate berean sartuko dira titularraren ezkontidea, titularrarekin ezkontzaz edo izatezko bikoteen erregistroz elkartua; haien ondorengo lehenengo gradura artekoak; adopzioz hartuak edota familia-abegi iraunkor edo adopzio aurrekoan hartuak, eta mendekotasun egoeran daudenak. Betiere, helbide berean bizi badira.

### **10.-Titularrak, onuradunak eta jasotzaileak.**

1. Prestazioa zer eskatzailearen izenean izapidetu eta ematen den, hura izango da eskubidezko prestazio ekonomikoen titular.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez, onuraduntzat hartuko dira titularraren bizikidetz-unitate berekoak direnak.

Pentsiodunentzako errenta bermatuari dagokionez, onuraduntzat hartuko dira titularraren pentsiodungune berekoak diren guztiak.

Diru-laguntzen izaera duten laguntzei dagokienez, hauek joko dira onuraduntzat: laguntza zeinen izenean izapidetu eta ematen den, bada hura eta haren bizikidetz-unitatekoak, erregelamenduz ezarriko denaren arabera.

3. Hartzailetzat hartuko da formalki, izapidetzearen ondorioetarako bakarrik, prestazioa materialki ordaintzen zaiona. Orokorrean, lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoen jasotzaileak, hain justu ere, prestazioen titularrak berak izango dira. Diru-laguntzen izaera duten laguntzei dagokienez, jasotzaileak, orokorrean, laguntza horien onuradunak berak izango dira.

4. Aurrekoa gorabehera, eta erregelamendu bidez zehaztuko diren kasuetan eta moduan, eskumena duen organoak aukera izango du prestazioa bizikidetz-unitateko beste bati ordain dakiola agintzeko. Aurrekoa aplikatuko da, betiere, kasu hauetan:

- a. Titularra edo onuraduna ezgai deklaratzeari, diru-laguntzen izaera duten laguntzak direnean.
- b. Titularrak edo, diru-laguntzen izaera duten laguntzak direnean, onuradunak ez betetzea prestazioa oinarrizko beharriari aurre egiten erabiltzeko betebeharra.

Halakoetan, bizikidetz-unitatean jarduteko gaitasuna duten pertsonen artean egokientzat jotzen denari ordaindu beharko zaio prestazioa, eta ez du zertan izan kiderik zaharrena. Adingabeen kasuan edo legez ezgaituen kasuan, legez haien tutoretza edo ordezkaritza daukanari.

Salbuespen gisa, espedientean objektiboki justifikatutako arrazoiengatik eta erregelamendu bidez ezarriko diren baldintzen barruan, titularra ez den eta onuraduna ez den beste norbait izan daiteke jasotzailea. Lehentasunez, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetako pertsonak izango dira, eta prestazio horien titularraren edo onuradunaren eskubide eta betebeharrak berberak izango dituzte.







Diru-laguntzen izaera duten laguntzei dagokienez, salbuespenez ordaindu ahal izango zaie haien zenbatekoa, guztiz edo partez, hauei: zerbitzu horiek eman dituztenei edo zerbitzu horiek kontratatu edo ondasunak eskuratu diren denda edo saltokiari. Behar bezala justifikatuta bakarrik hartu ahalko da erabaki hori, erregelamenduz zehazten denaren arabera.

5. Edonola ere, prestazioa titularra edo onuraduna ez den bati ordaintzeak ez du esan nahi, inondik ere, kasuan kasuko prestazioaren titulartasuna aldatzen denik.

### **11.-Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlea**

1.) Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlea ezartzen da. Adierazle hori erreferentzia izango da ondoko balio hauek finkatzeko: alde batetik, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari zein Pentsiodunentzako Errenta Bermatuari dagokien gehieneko errenta bermatuaren balioa (legearen 16. artikulua eta 23. artikulua); eta, bestetik, erreferentziako balio ekonomikoa gizarte-larrialdietarako laguntzen ondorioetarako (legearen 40. artikulua).

2. Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak hau jasotzen du: zer balio zenbatesten zaien gutxieneko gastu batzuei; hain zuzen ere, etxebizitza edo bizitoki independente bat mantentzearekin zerikusia duten oinarrizko beharrian arruntei bakarka aurre egin nahi dien edozein pertsonak izango lituzkeenei. Gutxieneko balio zenbatetsi horrek hauek hartzen ditu, era independentean bizi nahiko lukeen edozeinentzat: etxebizitza bati funtzionamenduan eusteko oinarrizko gastuak, bai eta bizitza independentearen edozein modalitate edo formatan hertsia-hertsian oinarrizko eta arruntzat jo daitezkeen beste guztiak ere.

3. Euskadiko gutxieneko gastuen adierazlearen balioa urtero finkatuko da, diru-sarreraren bermearen alorrean eskumena du sailak proposatuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorra arautzeko legean.

4. Lege honen ondorioetarako, Euskadiko gutxieneko gastuen adierazlearen hasierako balioa 455 € da.





## **II. TITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOAK**

### **I. KAPITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN EZAUGARRIAK**

#### **I. ATALA. ESKUBIDEZKO PRESTAZIO EKONOMIKOAK**

##### **I. AZPIATALA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTA**

###### **12.-Definizioa**

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eskubide subjektiboko prestazioa da, aldizkakoa eta izaera ekonomikoa, eta pertsona hauei zuzentzen zaie: bizikidetzaren unitate batekoak izaki, oinarriko premiei lotutako gastuei zein lan- edo gizarte-inklusioko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei.

###### **13.-Prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizunak**

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidearen titular izan daitezke prestazioa eskatu eta betekizun hauek betetzen dituztenak eskatzeko unean:

- a. Lanbiden erregistratuta egotea erregelamenduz ezarriko denaren arabera.
- b. 23 urtetik gorakoa izatea eta bizitza independenterako proiektu bat egiaztatzea.

Erregelamenduz ezar daitezkeen beste inguruabar batzuk gorabehera, ulertuko da bizitza independenterako proiektu bat egiaztatuta dagoela inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

- i. 30 urtetik gorakoa izatea.
- ii. 23 eta 29 urte bitartekoa izatea, eta gurasoen etxebizitza edo bizitokiak bestelako batean urtebete baino gehiago eman izana, edo, halakorik ezean, Estatuko Gizarte Segurantzaren alta emandako lan-jarduera ordaindu batean 120 egun egiaztatuta edukitzea eskari-urtearen aurrekoan.

Salbuespenez, 18 urtetik gorakoak ere izan daitezke titular baldin eta inguruabar hauetakoren bat ematen bada:





- i. Gurasoen etxebizitza edo bizitokiaz bestelako batean urtebete baino gehiago eman izana, eta Estatuko Gizarte Segurantzaren alta emandako lan-jarduera ordaindu batean 240 egun egiaztatuta edukitzea azken bi urteetan.
  - ii. Pentsioduna izatea lege honetan jasotakoaren arabera.
  - iii. Ekonomikoki ardurapean edukitzea adingabeak edo lege honetan jasotakoaren arabera mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.
  - iv. Familiaren barruko tratatu txarren biktima izatea.
  - v. Aitarik eta amarik gabeko umezurtza izatea, edo antzeko egoerak.
  - vi. Salbuespenezko bizikidetzaren unitate bateko kide izatea 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
  - vii. Beste pertsona batekin ezkontzaz edo izatezko bikoteen erregistroz elkartuta egotea gutxienez sei hilabete lehenagotik.
- c. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian, eta eskariaren datan kasu hauetakoren baten barruan egotea:
- i. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino hiru urte lehenagotik gutxienez. Bizikidetzaren unitatean ardurapeko adingaberik izanez gero, edo ardurapeko heldu mendekotasun-egoerarik, gutxienezko aldia bi urtera murriztuko da.
  - ii. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan.
  - iii. Estatuko Gizarte Segurantzaren alta emandako lan-jarduera ordaindu batean gutxienez bost urte egiaztatuta edukitzea eta bi baldintza hauek betetzea:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino urtebete lehenagotik gutxienez.
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana gutxienez hiru urtez jarraian.
  - iv. Familiaren barruko tratatu txarren biktima izatea. Nolanahi ere, bi baldintza hauek bete beharko dira:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino urtebete lehenagotik gutxienez.
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana gutxienez hiru urtez jarraian.
  - v. Errefuxiatua izatea, nazioarteko asiloa edo babes eskatu izana, baldin eta eskari hori izapidetzeko onartu bada eta ebatzi gabe badago, edo Asilo-





eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legeak aurreikusitako babes subsidiariorako eskubidearen subjektu izatea.

- vi. Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1 artikulua aipatzen dituen euskal gizataldeetako kide izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizi izanaren egiaztapena erregelamenduz zehaztuko da. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko benetako bizilekua galduko da pertsona batek 90 egunetik gora kanpoan ematen dituenean, jarraian edo etenaldiekin, urte natural baten barruan.

- d. Osorik funts publikoekin finantzaturako plazarik ez betetzea modu iraunkorrean goitza-zerbitzuren batean, dela sozial, sanitario edo soziosanitario.
  - e. Ez egotea espetxeratua erregimen arruntean edo itxian.
  - f. Bizikidetzaren unitate batekoa izatea, eta unitate horretako kideek:
    - i. Denen artean ez edukitzea baliabiderik aski oinarrizko beharrezanekin zerikusia duten gastuei eta inklusio-prozesuarekin zerikusia dutenei aurre egiteko; hori gertatzen dela ulertuko da baldin eta:
      - Ez badute ondasun higiezin, diru, titulu, balore edo ibilgailurik, eta, oro har, beste edozein ondasunik, balio hau baino handiagorik: bizikidetzaren unitatearen osaeraren arabera urtebetean egokituko litzatekeen diru-sarrerak bermatzeko errentarako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoa halako bost.
      - Ez badute bizikidetzaren unitatearen osaeraren arabera egokituko litzatekeen diru-sarrerak bermatzeko errentarako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoaren gaineko hileko errendimendurik.
    - ii. Eskabidearen helbidean erroldatuta egotea, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
    - iii. Prestaziora iritsi ezina ezartzen duen zehapenik ez izatea indarrean.
2. Prestazioa jasotzen den aldi guztian eutsi beharko zaie betekizunei.

#### **14-Titularren eta onuradunen betebeharrak**

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titularrek eta onuradunek betebeharrak hauek bereganatuko dituzte eskaria egiten dutenetik prestazioak diraeino:

- a. Euskal Autonomia Erkidegotik ez irtetea prestazio ekonomikoa jasotzen den bitartean, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
- b. Bizi den helbideko erroldatzeari eustea, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
- c. Eskura dituzten baliabideak erantzukizunez kudeatzea, egoera ekonomikoa edo bazterketa-egoera larriagotu ez dadin.





- d. Prestazio ekonomikoa onuradun guztien oinarritzko premiei aurre egitera bideratzea, eta, hala badagokio, haien gizarte- eta/edo lan-inklusioko prozesuak eragindako gastuei aurre egitera.
  - e. Inklusio-hitzarmen bat negoziatu eta sinatzea, eta hitzarmen horretan jasotako konpromisoak eta betebeharrak betetzea, bai eta, hala badagokio, beste zerbitzu publiko batzuekikoak ere.
  - f. Norberak ez egitea eta inori ez eginaraztea prestazioaren titular edo onuradunen inklusio-prozesua oztopatzeko moduko jarduerarik. Halakotzat hartuko dira, besteak beste:
    - i. Eskean ibiltzea eta/edo inori horretan ibiltzen uztea edo inor horretan ibilaraztea.
    - ii. Zigor Kodean delitutzat tipifikatzeko moduko jardueratan aritzea eta/edo Zigor Kodean jasotako delitua egiteagatik kondena penala jasotzea.
    - iii. Haien ardurapeko adingabeak ez eskolatzea eta adingabe horien benetako asistentzia bermatzeko bitartekorik ez jartzea.
  - g. Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolana ere, kontuan izango dira inklusio-hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak.
  - h. Prestazioaren titularrari edo onuradunetako edozeini eduki ekonomikoko eskubide edo prestaziorik egokitzuz gero, hura baliaraztea.
  - i. Lan-jarduerari borondatez ez uztea, ez eta inoren konturako lanean borondatezko baja hartzea ere, diziplinazko kaleratzerik ez jasatea, indarreko legeriaren arabera egokia den enplegurik ez baztertzea, eta lan-eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik ez hartzea, ez bada arrazoi justifikatu batengatik.
  - j. Bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea.
  - k. Eskubidezko prestazio ekonomikoen xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezartzen direnak.
2. Aurreko apartatuan zerrendatutako betebeharrak gain, eskubidezko prestazio ekonomikoen titularrek betebeharrak hau ere bereganatuko dute: erregelamenduz ezarritako den epean komunikatzea edozein gertaera, baldin eta prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar bidezake lege honetan ezarritakoaren arabera. Dena den, onuradun adinez nagusiek bere buruari eragiten dieten gertaeren berri eman dezakete.
3. Betebeharra nork ez duen bete, hura izango da ez-betetzearen erantzulea, salbu eta adingabeko batek edo legez ezgaitutako heldu batek egin badu ez-betetzea, prestazioaren titularra izango baita halakoetan ez-betetzearen erantzulea.

## **15.-Bizikidetzaren unitate primarioak eta sekundarioak**

1. Gehieneko errenta bermatua zehazteko, etxebizitza edo bizitokiko bizikidetzaren unitateen kopurua hartuko da kontuan, eta arau hauek beteko dira:





- a. Bizikidetza-unitate bakarria bada, hura izango da unitate primarioa.
- b. Helbide berean bizikidetza-unitate bat baino gehiago badago, haietako bat baino ez da izango unitate primario, sekundarioak izango baitira gainerakoak. Primariotzat joko da helbide horretan denbora gehien erroldatuta daraman pertsonaren bizikidetza-unitatea, prestaziorako eskubidearekin edo gabe.
- c. Salbuespenezko bizikidetza-unitatea primariotzat jo daiteke baldin eta helbideko erroldatze zaharrena duen pertsona bizikidetza-unitate horretakoa bada.

### **16.-Hileko zenbaeko onartua finkatzea**

Bizikidetza-unitate bati dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbateko onartua finkatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a. Finkatu beharreko kopuruak kontuan hartuko ditu bizikidetza-unitatea osatzen duten pertsona guztiak.
- b. Bizikidetza-unitate bati dagokion diru-sarrerak bermatzeko errentaren hileko zenbateko onartua honela aterako da: bizikidetza-unitatearen diru-sarrera bermatuak ken bizikidetza-unitate horretako kide guztiek eskuragarri dituzten errendimendu guztiak.

$$\text{Hileko zenbateko onartua } BU|_{DSBE} =$$

Diru-sarrera bermatuak  $BU|_{DSBE}$  – Eskura dauden errendimenduak  $BU|_{DSBE}$

- c. Honela aterako dira diru-sarrera bermatuak: inplikazio aktiboaren koefizientea aplikatuta bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatuari.
- d. Bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatua hauek batuta ateratzen da: oinarritzko zenbatekoa, banakako osagarrien batura eta bizikidetza-unitatearen ezaugarri-osagarrien batura.

Oinarritzko zenbatekoa Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak zehazten du.

Banakako osagarriei partaidetza-koefiziente bat ezar dakieke, zeina zehaztuko baita bizikidetza-unitateko kide bakoitzak betekizunak noraino betetzen dituen kontuan hartuta.

- e. Honela finkatuko da bizikidetza-unitatearen inplikazio aktiboaren koefizientea: kideek prestazioa eskatzean bereganatu zituzten betebeharrak betetzearen arabera.
- f. Bizikidetza-unitateak eskura dituen diru-sarrerak zein diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, titulu honetako II. kapituluaren I. atalean aurreikusitako moduan.





## 17.-Gehieneko errenta bermatua

1. Kide bakarreko bizikidetzata-unitate primarioarentzako gehieneko errenta bermatua 659,75 eurokoa da.

2. Bizikidetzata-unitatearen gehieneko errenta bermatua hauek batuta ateratzen da: oinarritzko zenbatekoa, bizikidetzata-unitateko kide bakoitzaren banakako osagarriak eta bizikidetzata-unitatearen ezaugarri-osagarriak. Banakako osagarriari partaidetzata-koefizientea ezar dakieke.

Gehieneko errenta bermatua  $BU |_{DSBE} = \text{Oinarritzko zenbatekoa} + \Sigma [K_1(i)*\text{Heldua}(i)] + \Sigma [K_1(j)*\text{Adingabea}(j)] + \Sigma \text{EO}(k)$

Non,

$K_1(i)$ , partaidetzata-osagarriaren koefizienteari dagokion.

Heldua(i), onuradun heldu bakoitzarentzako banakako osagarriari dagokio.

Adingabea(j), onuradun adingabe bakoitzarentzako banakako osagarriari dagokio.

EO(k), bizikidetzata-unitatearen ezaugarri-osagarriari dagokie.

3. Gehieneko errenta bermatuaren oinarritzko zenbatekoa Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak zehazten du.

a. Adierazlearen % 100 izango da bizikidetzata-unitate primarioarentzat.

b. Adierazlearen % 45 izango da bizikidetzata-unitate sekundarioarentzat.

4. Osagarrien zenbatekoa oinarritzko zenbatekoaren, edo, kasu jakin batzuetan, prestazioaren titularrari dagokion zenbatekoaren ehunekotan zehazten da, nola eta honela:

a. Banakako osagarriak:

i. Helduak:

(1) Titularra: Bizikidetzata-unitate primarioaren oinarritzko zenbatekoaren % 45.

(2) Titularren ezkontidea edo izatezko bikotekidea: Titularren osagarriaren % 80.

(3) Gainerako helduak: Titularren osagarriaren % 50, gehienez ere 4 heldu.

ii. Adingabeak:

(1) Lehenengoa: Titularren osagarriaren % 60.

(2) Bigarrena: Titularren osagarriaren % 42.

(3) Hirugarrena eta laugarrena: Titularren osagarriaren % 30.

(4) Beste batzuk: Titularren osagarriaren % 24.

b. Bizikidetzata-unitatearen ezaugarriengatik osagarria:

i. Gurasobakartasuna: Titularren osagarriaren % 50.





- ii. Familia-esparruko indarkeria jasan dutenen presentzia: Titularraren osagarriaren % 50.
  - iii. % 65 edo gehiagoko desgaitasuna dutenen presentzia, eta beste laguntza edo prestaziorik ez jasotzea arrazoi horrengatik: Titularraren osagarriaren % 50.
5. Partaidetza-koefiziente bat ezarriko zaie bizikidetza-unitateko kideei dagozkien banakako osagarriei. Irizpide hauek aplikatuko dira koefiziente hori zehazteko:
- a. Oro har, bizikidetza-unitateko kide guztiek izango dute banakako osagarri osoa, eta banakako partaidetza-koefizientearen balioa 1 izango da.
  - b. Aurreko apartatuan ezarritakoa gorabehera, partaidetza-koefizientea 1 baino gutxiago izan daiteke, 0 balioa iritsi arte —erregelamenduz jasoko denaren arabera—, egoera hauetan:
    - i. Bizikidetza-unitateko kide helduren batek ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egotearen eta bertan benetan bizi izanaren betekizuna, 13.c artikuluan jasota dagoena.
    - ii. Pertsona batek egoitza-zerbitzuren batean —dela sozial, sanitario edo soziosanitario— plaza bat betetzea modu iraunkorrean eta osorik funts publikoekin finantzatuta, edo aldi baterako, hilabetetik gorako egonaldian.
    - iii. Bizikidetza-unitateko kideak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora joatea.
    - iv. Partekatutako zaintzako epai batek eragitea bizikidetza-unitateko kideren bati.
    - v. Erregelamenduz zehaztuko diren egoeretan.
6. Bizikidetza-unitatearen gehieneko errenta bermatuak inoiz ez du gaindituko ezarritako oinarrizko zenbatekoaren % 270a, bizikidetza-unitate primarioen kasuan, eta ezarritako oinarrizko zenbatekoaren % 135a, bizikidetza-unitate sekundarioen kasuan.
7. Hauek dira oinarrizko zenbatekoaren eta osagarrien balioak:

<b>Oinarrizko zenbatekoa / Osagarriak</b>	<b>Bizitexeko pertsonak</b>	<b>Euro/hil</b>
Oinarrizko zenbatekoa	BU primarioa	455,00 €
	BU sekundarioa	204,75 €
BU-ko helduengatiko osagarriak	Titularra	204,75 €
	Ezkontidea edo izatezko bikotekidea	163,80 €
	Gainerako helduak (gehienez 4 heldu)	102,38 €
BU-ko ardurapeko adingabeengatiko osagarriak	Lehenengo adingabea	122,85 €
	Bigarren adingabea	86,00 €
	Hirugarren eta laugarren adingabeak	61,43 €
	Bosgarren adingabea eta hurrengoak	49,14 €
Bizikidetza-unitatearen ezaugarriengatiko osagarria	Gurasobakartasuna	102,38 €
	Desgaitasuna	102,38 €
	Familia-esparruko indarkeria	102,38 €





### **18.-Inplikazio aktiboaren koefizientea**

1. Inplikazio aktiboaren koefizienteak hau erakusten du: bizikidetzaren unitatea osatzen duten pertsona guztien inklusio-konpromisoa. Prestazioa eskatzerakoan hartutako betebeharren betetzearen arabera ulertuko da konpromiso hori.
2. Oro har, bizikidetzaren unitateak gehieneko errenta bermatu guztia izango du, inplikazio aktiboaren koefizienteari 1 balioa emanda.

Hala ere, inplikazio aktiboaren koefizientea 1 baino gutxiago izan daiteke, 0 balioa iritsi arte. Balio hori erregelamenduz zehaztuko da, oinarritzat hartuta bizikidetzaren unitateko kideen betebeharren ez-betetzeak, kontuan hartuta, besteak beste, bete gabeko betebeharraren izaera, ez-betetzearen iraupena, ez-betetzearen aldiberekotasuna eta zerikusia duten pertsonen kopurua. Inplikazio aktiboaren koefizientearen aldaketa erregelamenduz zehaztuko den epealdian aplikatuko da, eta, beti ere, prestaziorako eskubidea indarrean dirauenean.

## **II. AZPIATALA. PENTSIODUNENTZAKO ERRENTA BERMATUA**

### **19.-Definizioa**

Pentsiodunentzako errenta bermatua eskubide subjektiboko prestazioa da, aldizkakoa eta izaera ekonomikoa, eta pertsona hauei zuzentzen zaie: pentsiodunen gune batekoak izaki, oinarritzako premiei lotutako gastuei zein, hala badagokio, lan- edo gizarte-inklusioko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei.

### **20.-Pentsiodunen gunea**

1. Hauek osatuko dute pentsiodunen gunea: pentsiodun batek eta haren ezkontideak edo hari izatezko bikotekide gisa lotuak, bikotea dagokion erregistroan inskribatuta badago.

Lege honetan xedatuaren ondorioetarako, hau da pentsioduna: kotizaziopeko erretiro-, ezintasun iraunkorreko-, alargun- pentsioen onuraduna, zahartzaroko eta baliaezintasuneko nahitaezko aseguruarena, ezintasun edo erretiroarengatik kotizazio gabeko pentsioarena, edo % 65 edo gehiagoko desgaitasuna duen ardurapeko seme-alabarengatik prestazio baten kausaduna.

2. Pentsiodunen gunea zer etxebizitza edo bizitokitan bizi den, hango bizikidetzaren unitatearen zati izango da. Etxebizitza edo bizitoki horretan bizikidetzaren unitate bat baino gehiago badago, haietarako batekoa izango da. Etxebizitza edo bizitokian



pentiodunen gunea osatzen duten pertsonak baino ez badira bizi, pentiodunen gunea bat etorriko da bizikidetza-unitatearekin.

## **21.-Prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizunak**

1. Pentiodunentzako errenta bermaturako eskubidearen titular izan daitezke prestazioa eskatu eta betekizun hauek betetzen dituztenak eskatzeko uanean:

- a. Pentioduna izatea edo pentiodunen gune bateko kidea.
- b. Lanbiden erregistratuta egotea erregelamenduz ezarriko denaren arabera.
- c. 18 urtetik gorakoa izatea.
- d. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea prestazioa jasotzen den denbora guztian, eta eskariaren datan kasu hauetakoren baten barruan egotea:
  - i. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino hiru urte lehenagotik gutxienez. Bizikidetza-unitatean ardurapeko adingaberik izanez gero, edo ardurapeko pertsona mendekotasun-egoerakorik, gutxienerako aldia bi urtera murriztuko da.
  - ii. Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana bost urtez jarraian aurreko hamar urteen barruan.
  - iii. Estatuko Gizarte Segurantzaren alta emandako lan-jarduera ordaindu batean gutxienez bost urte egiaztatuta edukitzea eta bi baldintza hauek betetzea:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino urtebete lehenagotik gutxienez.
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana gutxienez hiru urtez jarraian.
  - iv. Familiaren barruko tratu txarren biktima izatea. Nolanahi ere, bi baldintza hauek bete beharko dira:
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana eskariaren data baino urtebete lehenagotik gutxienez.
    - Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana gutxienez hiru urtez jarraian.
  - v. Errefuxiatua izatea, nazioarteko asiloa edo babes eskatu izana, baldin eta eskari hori izapidetzeko onartu bada eta ebatzi gabe badago, edo Asilo-eskubidea eta babes subsidiarioa arautzen dituen urriaren 30eko 12/2009 Legeak aurreikusitako babes subsidiarioarako eskubidearen subjektu izatea.



- vi. Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 11.1 artikulua aipatzen dituen euskal gizataldeetako kide izatea.

Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizi izanaren egiaztapena erregelamenduz zehaztuko da. Nolanahi ere, Euskal Autonomia Erkidegoko benetako bizilekua galduko da pertsona batek 90 egunetik gora kanpoan ematen dituenean, jarraian edo etenaldiekin, urte natural baten barruan.

- e. Osorik funts publikoekin finantzaturako plazarik ez betetzea modu iraunkorrean egoitza-zerbitzuren batean, dela sozial, sanitario edo soziosanitario.
  - f. Ez egotea espetxeratua araubide arruntean edo itxian.
  - g. Pentsiodunen gune bateko kide izatea, eta gune horretako kideek:
    - i. Denen artean ez edukitzea baliabiderik aski oinarrizko beharrezanekin zerikusia duten gastuei eta inklusio-prozesuarekin zerikusia dutenei aurre egiteko; hori gertatzen dela ulertuko da baldin eta:
      - Ez badute ondasun higiezin diru bihurtzeko moduko, diru, titulu, balore edo ibilgailurik, eta, oro har, beste edozein ondasunik, balio hau baino handiagorik: pentsiodunen gunearen osaeraren arabera urtebetean egokituko litzatekeen pentsiodunentzako errenta bermaturako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoa halako bost.
      - Ez badute pentsiodunen gunearen osaeraren arabera egokituko litzatekeen diru-sarrerak bermatzeko errentarako gehieneko errenta bermatuaren zenbatekoaren gaineko hileko errendimendurik.
    - ii. Eskabidearen helbidean erroldatuta egotea, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
    - iii. Prestaziora iritsi ezina ezartzen duen zehapenik ez izatea indarrean.
2. Prestazioa jasotzen den aldi guztian eutsi beharko zaie betekizunei.

## **22.-Titularren eta onuradunen betebeharrak**

1. Eskubidezko prestazioen titularrek eta onuradunek betebeharrak hauek bereganatuko dituzte eskaria egiten dutenetik prestazioak diraeino:
  - a. Euskal Autonomia Erkidegotik ez irtetea prestazio ekonomikoa jasotzen den bitartean, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
  - b. Bizi den helbideko erroldatzeari eustea, erregelamenduz ezarriko diren salbuespenekin.
  - c. Eskura dituzten baliabideak erantzukizunez kudeatzea, egoera ekonomikoa edo bazterketa-egoera larriagotu ez dadin.





- d. Prestazio ekonomikoa onuradun guztien oinarritzko premiei aurre egitera bideratzea, eta, hala badagokio, haien gizarte- eta/edo lan-inklusioko prozesuak eragindako gastuei aurre egitera.
  - e. Inklusio-hitzarmen bat negoziatu eta sinatzea, eta hitzarmen horretan jasotako konpromisoak eta betebeharrak betetzea, bai eta, hala badagokio, beste zerbitzu publiko batzuekikoak ere.
  - f. Norberak ez egitea eta inori ez eginaraztea prestazioaren titular edo onuradunen inklusio-prozesua oztopatzeko moduko jarduerarik. Halakotzat hartuko dira, besteak beste:
    - i. Eskean ibiltzea eta/edo inori horretan ibiltzen uztea edo inor horretan ibilaraztea.
    - ii. Zigor Kodean delitutzat tipifikatzeko moduko jardueratan aritzea eta/edo Zigor Kodean jasotako delitua egiteagatik kondena penala jasotzea.
    - iii. Haien ardurapeko adingabeak ez eskolatzea eta adingabe horien benetako asistentzia bermatzeko bitartekorik ez jartzea.
  - g. Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolana ere, kontuan izango dira inklusio-hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak.
  - h. Prestazioaren titularrari edo onuradunetako edozeini eduki ekonomikoko eskubide edo prestaziorik egokituz gero, hura baliaraztea.
  - i. Lan-jarduerari borondatez ez uztea, ez eta inoren konturako lanean borondatezko baja hartzea ere, diziplinazko kaleratzerik ez jasatea, indarreko legeriaren arabera egokia den enplegurik ez baztertzea, eta lan-eszedentziarik edo lanaldi-murrizketarik ez hartzea, ez bada arrazoi justifikatu batengatik.
  - j. Bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea.
  - k. Eskubidezko prestazio ekonomikoen xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezartzen direnak.
2. Aurreko apartatuan zerrendatutako betebeharez gain, eskubidezko prestazio ekonomikoen titularrek betebeharrak hau ere bereganatuko dute: erregelamenduz ezarritako den epean komunikatzea edozein gertaera, baldin eta prestaziorako eskubidea aldatzea, etetea edo azkentzea ekar bidezake lege honetan ezarritakoaren arabera. Dena den, onuradun adinez nagusiek bere buruari eragiten dieten gertaeren berri eman dezakete.
3. Betebeharra nork ez duen bete, hura izango da ez-betetzearen erantzulea, salbu eta adingabeko batek edo legez ezgaitutako heldu batek egin badu ez-betetzea, prestazioaren titularra izango baita halakoetan ez-betetzearen erantzulea.

### **23.-Hileko zenbateko onartua finkatzea**

Pentsiodunen gune bati dagokion pentsiodunen errenta bermatuaren hileko zenbateko onartua finkatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:





- a. Finkatu beharreko kopuruak pentsiodunen gunea osatzen duten pertsona guztiak hartuko ditu kontuan.
- b. Pentsiodunen gunea bati dagokion pentsiodunen errenta bermatuaren hileko zenbateko onartua honela aterako da: pentsiodunen gunearen diru-sarrera bermatuak ken pentsiodunen gunea horretako kide guztiek eskuragarri dituzten errendimendu guztiak.

Hileko zenbateko onartua  $PG|_{PEB} =$

Diru-sarrera bermatuak  $PG|_{PEB} -$  Eskura dauden errendimenduak  $PG|_{PEB}$

- c. Honela aterako dira diru-sarrera bermatuak: inplikazio aktiboaren koefizientea aplikatuta pentsiodunen gunearen gehieneko errenta bermatuari.
- d. Honela ezartzen da pentsiodunen gunearen gehieneko errenta bermatua: oinarritzko zenbatekoa gehi banakako osagarriak eginda.  
Oinarritzko zenbatekoa komuna da pentsiodunen gunea guztientzat, kide-kopurua gorabehera, eta Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak zehazten du.  
Banakako osagarriei partaidetza-koefiziente bat ezar dakieke, pentsiodunen guneko kide bakoitzak betekizunak noraino betetzen dituen kontuan hartuta.
- e. Honela finkatuko da pentsiodunen gunearen inplikazio aktiboaren koefizientea: kideek prestazioa eskatzean bereganatu zituzten betebeharrak betetzearen arabera.
- f. Pentsiodunen gunek eskura dituen diru-sarrerak zein diren zehazteko, kide guztien errendimenduak hartuko dira kontuan, titulu honetako II. kapituluaren I. atalean aurreikusitako moduan.

#### **24.-Gehieneko errenta bermatua**

1. Kide bakarreko pentsiodunen guneko gehieneko errenta bermatua 784,88 eurokoa da.
2. Honela ezartzen da pentsiodunen gunearen gehieneko errenta bermatua: oinarritzko zenbatekoa gehi pentsiodunen guneko kide bakoitzarentzako banakako osagarriak. Banakako osagarriei partaidetza-koefizientea ezar dakieke.

Gehieneko errenta bermatua  $PG|_{PEB} =$  Oinarritzko zenbatekoa +  $\sum [K_1(i)*Kidea(i)]$

Non,

$K_1(i)$ , partaidetza-osagarriaren koefizienteari dagokion.

$Kidea(i)$  pentsiodunen guneko kide bakoitzarentzako banakako osagarriari dagokion.

3. Gehieneko errenta bermatuaren oinarritzko zenbatekoa Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak zehazten du, eta adierazlearen % 100 izango da.
4. Banakako osagarrien zenbatekoa oinarritzko zenbatekoaren ehunekotan ezarriko da, horra:
  - a. Lehenengo kidea: Oinarritzko zenbatekoaren % 72,5.





- b. Bigarren kidea: Oinarrizko zenbatekoaren % 42,5.
5. Partaidetza-koefiziente bat ezarriko zaie bizikidetz-unitateko kideei dagozkien banakako osagarriei. Irizpide hauek aplikatuko dira koefiziente hori zehazteko:
- Oro har, pentsiodunen guneko kide guztiak izango dute banakako osagarri osoa, eta banakako partaidetza-koefizientearen balioa 1 izango da.
  - Aurreko apartatua ezarritakoa gorabehera, partaidetza-koefizientea 1 baino gutxiago izan daiteke, 0 balioa iritsi arte —erregelamenduz jasoko denaren arabera—, egoera hauetan:
    - Pentsiodunen guneko kideren batek ez betetzea Euskal Autonomia Erkidegoan erroldatuta egotearen eta bertan benetan bizi izanaren betekizuna, 21.d artikuluan jasota dagoena.
    - Pertsona batek egoitza-zerbitzuren batean —dela sozial, sanitario edo soziosanitario— plaza bat betetzea modu iraunkorrean eta osorik funts publikoekin finantzatuta, edo aldi baterako, hilabetetik gorako egonaldian.
    - Pentsiodunen guneko kideak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora joatea.
    - Erregelamenduz zehaztuko diren egoeretan.
6. Hauek dira oinarrizko zenbatekoaren eta osagarrien balioak:

Oinarrizko zenbatekoa / Osagarriak	Bizitxeko pertsonak	Euro/hil
Oinarrizko zenbatekoa	Pentsiodunen gunea	455,00 €
Pentsiodunen guneko kideengatiko osagarriak	Lehenengo kidea	329,88 €
	Bigarren kidea	193,38 €

## 25.-Inplikazio aktiboaren koefizientea

1. Inplikazio aktiboaren koefizienteak hau erakusten du: pentsiodunen gunea osatzen duten pertsona guztien inklusio-konpromisoa. Prestazioa eskatzerakoan hartutako betebeharren betetzearen arabera ulertuko da konpromiso hori.

2. Oro har, pentsiodunen gunek gehieneko errenta bermatu guztia izango du, inplikazio aktiboaren koefizienteari 1 balioa emanda.

Hala ere, inplikazio aktiboaren koefizientea 1 baino gutxiago izan daiteke, 0 balioa iritsi arte. Balio hori erregelamenduz zehaztuko da, oinarrizkat hartuta pentsiodunen guneko kideen betebeharren ez-betetzeak, kontuan hartuta, besteak beste, bete gabeko betebeharraren izaera, ez-betetzearen iraupena, ez-betetzearen aldiberekotasuna eta zerikusia duten pertsonen kopurua. Inplikazio aktiboaren koefizientearen aldaketa erregelamenduz zehaztuko den epealdian aplikatuko da, eta, beti ere, prestaziorako eskubidea indarrean dirauenean.





### **III. AZPIATALA PENTSIODUNENTZAKO ERRENTA BERMATUAREN ETA DIRU SARRERAK BERMATZEKO ERRENTAREN XEDAPEN ERKIDEAK**

#### **26.-Ezaugarriak**

1. Bai diru-sarrerak bermatzeko errenta bai pentsiodunentzako errenta bermatua subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango zaizkie indarreko legerian aurreikusten diren era guztietako baliabide eta prestazio ekonomikoei, baliabide-prestazio horiek bizikidetz-unitateko edo pentsiodunen guneko titularrari edo kideei legozkiekeenean.
2. Transferiezinak izango dira, eta, horrenbestez, ezingo dira:
  - a. Obligazio-berme gisa eskaini.
  - b. Laga, ez osorik, ezta partzialki ere.
  - c. Konpentsatu edo deskontatu, bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko ez bada.
  - d. Atxiki edo bahitu, aplikatzekoa den Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.

#### **27.-Modalitateak**

Bizikidetz-unitateak edo pentsiodunen gunek eskuratutako errendimenduen jatorriaren arabera, bai diru-sarrerak bermatzeko errentak bai pentsiodunentzako errenta bermatuak modalitate hauetakoren bat hartuko dute:

- a. Gizarte-inklusio eta -babeserako oinarrizko errenta, lan-errentetatik etorritako diru-sarrerarik ez duten bizikidetz-unitate edo pentsiodunen guneentzat.
- b. Laneko diru-sarrerak osatzeko errenta, lan-errentetatik etorritako diru-sarrerak dituzten bizikidetz-unitate edo pentsiodunen guneentzat.

Eskubidezko prestazio ekonomikoen modalitate batetik bestera pasatu behar bada, automatikoki egingo da aldaketa, lehenengo modalitatea azkentzeko eta bigarrenera sartzeko berariazko izapiderik egin beharrik gabe.

#### **28.-Inklusio-hitzarmenarekin duen lotura**

III. tituluko I. kapituluaren aurreikusitakoaren arabera, eskubidezko prestazio ekonomikoak emango badira, inklusio-hitzarmen bat eratu beharko da titularrarekin eta, hala badagokio, haren bizikidetz-unitateko edo pentsiodunen guneko onuradun izan daitezkeen beste batzuekin, gizarte- eta lan-inklusioa errazte aldera.





### **29.-Prestazioen aldiberekotasuna.**

1. Pentsiodunentzako errenta bermatua diru-sarrerak bermatzeko errentarekin batera existitu daiteke.
2. Erregelamenduz zehaztuko da etxebizitza edo bizitoki berean batera existitu daitezkeen eskubidezko prestazio ekonomikoen gehieneko muga.

### **30.-Titularren aldiberekotasuna**

Bizikidetz-unitate edo pentsiodunen gune berean pertsona batzuk badaude prestazio beraren titularra izan daitezkeenak, haietako bati bakarrik emango zaio prestazioa.

Lehentasunez, lehenengo eskatu duen pertsonari emango zaio prestazioa.

Pentsiodunentzako errenta bermatuaren kasuan, pentsioduna izango da titularra lehentasunez.

### **31.-Sortzapena eta ordainketa**

Eskubidezko prestazio ekonomikoak eskari-dataren biharamunetik sortuko dira.

Prestazioak hilabete naturala amaitu ondoren ordainduko dira, eta aurreko paragrafoan prestazioari ezarri zaion sortzapen-egunetik aurrerako ondorio ekonomikoak izango dituzte.

### **32.-Eskubidearen iraupena**

1. Pentsiodunentzako errenta bermaturako eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskubidea aitortzen da lege honetan aurreikusitako betekizunak betetzen diren bitarteko.
2. Prestazioak bi urteko aldirako emango dira, eta bi urterik behin berritu ahalko dira, aldez aurretik eskatuz gero, baldin eta prestazioa ematea ekarri zuten baldintzak —ekonomikoak edo beste izaera batekoak— mantentzen badira.

### **33.-Egiaztatzea eta gainbegiratzea**

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatze- eta gainbegiratze-lanak egin ditzake prestazioaren eskatzaileek, titularrek eta onuradunek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituztela ikusteko. Ondorio horretarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beharrezko irizten dion dokumentazioa eska diezaieke interesdunei.
2. Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak edozein administrazio publiko edo erakunde pribatura jo dezake laguntza bila, eta egoki irizitako datuak eta txostenak





eskatu, prestazioaren eskatzaileek, titularrek eta onuradunek betekizunak eta betebeharrak betetzen dituzten egiaztatzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskariei jaramonik ez egiteak zehapen-prozedura abiaraztea ekar lezake.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak betebeharrak hau ezarri die titular eta onuradunei: Lanbideren aurrean agertzea eta, hala dagokionean, beharrezko iritzia zaion dokumentazioa ekartzea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, euskal administrazio publikoen mendeko beste organo batzuekin eta beste administrazio publiko batzuekin batera, iruzurra kontrolatzeko planak presta ditzake, eta plan horietan neurriak ezarri erakunde edo organismoen arteko koordinazioa, lankidetzeta eta elkarlana hobetzeko.

### **34.-Aldizkako berrikuspenak**

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak ofizioz egingo ditu egoki iritzitako berrikuspen guztiak lege honetan jasotako betekizunei eusten zaien eta betebeharrak betetzen diren egiaztatzeko.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hauek eskatu ahal izango dizkie gainerako administrazio publikoei eta erakunde pribatuei: berrikuste-lanak zuzen egiteko beharrezko dituen datuak eta txostenak.

### **35.-Hileko zenbateko onartua aldatzea**

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta pentsiodunentzako errenta bermatuaren hileko zenbateko onartua aldatuko da hileko zenbateko onartua finkatzeko kontuan izan diren elementuek edozein aldaketa, 16. eta 23. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Aldatzeko arrazoi izango dira:

- a. Iristeko eta eusteko betekizunen eremuan:
    - i. Aldaketa bizikidetzeta-unitatean edo pentsiodunen gunean.
    - ii. Kalkulurako oinarritzat erabili diren baliabide ekonomikoen aldaketa.
    - iii. Bizikidetzeta-unitateko kideren baten pentsiodun-egoeraren aldaketa.
    - iv. Partaidetzeta-koefizientearen aldaketa.
  - b. Betebeharren eremuan:
    - i. Inplikazio aktiboaren koefizientearen aldaketa.
  - c. Erregelamenduz ezar litekeen beste edozein.
2. Erregelamenduz ezarriko da hileko zenbateko onartua aldatzeko prozedura.
3. Iristeko eta eusteko betekizunen eremuan, gertaera eragilearen hil berean izango ditu ondorioak aldaketak.





4. Betebeharren eremuan, ebazpenaren ondorio-datan izango ditu ondorioak aldaketak.

### **36.-Kautelaz etetea**

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestazioen ordainketa kautelaz etetea erabaki ahalko du, baldin eta zantzuren batzuk detektatzen badira, adierazten dutenak prestazioa jasotzeko eskubidea aitortzeko edo mantentzeko eskatutako betekizunetakoren bat galdu dela edo, hala badagokio, azkentze-arrazoiren bat dagoela. Halakoetan, dagokion espedientea abiarazi ondoren, prestaziorako eskubidea mantendu, aldatu edo azkentzeari buruzko ebazpena hartuko du hiru hilabeteko gehieneko epean, kautelazko etetea erabaki zen datatik aurrera.

Prozedura ebazteko unean ordainduko dira kautelazko etenaldian jaso gabeko zenbatekoak, haietarako eskubidea badago.

### **37.-Eskubidea azkentzea**

1. Hauek izango dira eskubidezko prestazio ekonomikoak azkentzeko arrazoiak:
  - a. Titularra hiltzea, prestazioaren onuradun bakarra denean.
  - b. Titularra egoitza-zerbitzu batean sartzea —dela sozial, sanitario edo soziosanitario— 12 hilabete edo luzeagoko aldi batez, eta osorik funts publikoekin finantzatutako plaza bat betetzea, baldin eta prestazioaren onuradun bakarra bada.
  - c. Titularra espetxe-izaerako zentzoren batean sartzea hilabete edo luzeagoko aldi batez, baldin eta prestazioaren onuradun bakarra bada.
  - d. Prestazioaren bi urteko indarraldia amaitzea eta berritzeko eskaririk ez aurkeztea Administrazioak horretarako errekerimendua egin ondoren.
  - e. Eskubidezko prestazio ekonomikoa aitortzeko eskatutako betekizunen bat galtzea.
  - f. Informaziorik eza dela eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zehaztu ezina betekizunak betetzen direla edo betekizunei eusten zaiela eskatutako aldian, baldin eta horretarako dokumentazioa eskatu eta ekarri ez bada.
  - g. Titularrak uko egitea.
  - h. Zigor-prozedura batek hala ebaztea.
  - i. Salbuespenezko bizikidetzaren unitate bati erregelamenduz ezarri zaion indarraldia amaitzea.
2. Diru-sarrerak bermatzeko errentarako edo pentsiodunentzako errenta bermaturako eskubidea azkenduz gero, prestaziorako eskubidea galduko da azkentzea ekarri zuten arrazoiak eman ziren egunaren biharamunetik aurrera. Orduz geroztik





zenbatekorik jasoz gero, bidegabeki jasotzat joko da, eta dagokion prozeduraren bitartez erreklamatuko dira.

3. Artikulu honetako 1.e eta 1.f apartatuan jasotako kasuetan, ez zaio azkentzeari ekingo baldin eta, ebazpena emateko unean, prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizunak betetzen badira. Hori guztia ez da eragozpena izango prestaziora iristeko eta prestazioari eusteko betekizuna zehaztugabetzat edo betegabetzat jotzen den aldian jasotako zenbatekoak erreklamatzeko.

4. Prestazioaren titularra hilez gero, bizikidetzaren unitateak pertsona bakarrekoak ez direnean, ez da prestaziorako eskubidea azkenduko baldin eta, bizikidetzaren unitateko beste kide batek, betiere titular izateko betekizunak beteta, prestazioaren subrogazioa eskatzen badu.

### **III. ATALA. GIZARTE LARRIALDIETARAKO LAGUNTZAK**

#### **38.-Definizioa**

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak aldizkakoak ez diren prestazioak dira; haien izaera ekonomikoa eta diru-laguntzarena da. Gizarte-arrisku edo -bazterketako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezko diren gastu espezifikoak, ohikoei nahiz ezohikoei, aurre egiteko behar beste baliabide ez duten pertsonen zuzentzen da.

2. Halakotzat joko dira, nolana ere, gastu hauek:

- a. Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezko diren gastuak, hauek barne:
  - i. Alokairu-gastuak.
  - ii. Gizarte-larrialdian egon aurretik etxebizitza edo bizitokia eskuratzearen ondorioz hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuak.
  - iii. Energia-gastuak, elektrizitate- edo gas-hornidurarekin edo etxean erabiltzeko beste edozein erregairenarekin zerikusia dutenak.
  - iv. Altzari-gastuak eta «lerro zuria» deritzonako etxetresna elektrikoak.
  - v. Etxebizitza egokitu edo konpontzeko gastuak eta/edo etxebizitzako oinarriko instalazioetarakoak.
  - vi. Ohiko etxebizitza edo bizitokia eduki eta mantendu ahal izateko beharrezko diren beste gastu batzuk. Kontzeptu horretan sartzen dira gastu hauek: ura, zaborra, estolderia, hiri- zein landa-ondasun higiezinaren gaineko zerga, bai





eta jabekideen komunitatearen kuotaren ondoriozkoak ere, eta etxebizitzaren segurtasunarekin zerikusia dutenak (eraikinen aseguramendua eta ikuskapen teknikoa).

- b. Pertsonen oinarrizko beharrei dagozkien gastuak, hala nola janztekoari, hezkuntza eta prestakuntzari eta osasun-arretari dagozkienak, sistema publikoek gastu horiei aurre egiten ez dietenean.
  - c. Aurretiko zorpetzearen gastuak, a eta b apartatuetan aipatutako gastu-kontzepturen batek edo bizitzako oinarrizko premiei aurre egiteko gastuek sortuak.
3. Erregelamenduz ezarriko den moduan, laguntza hauen onuradun izan daitezke pertsona bakarrak, lege honetako definizioaren arabera bizikidetzaren unitate bat osatzen duten pertsonak, edo etxebizitza edo bizitoki berean familia-lotura duten pertsonak.

### **39.-Ezaugarriak**

1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak helburu jakin baterako dira; beraz, zertarako eman diren, helburu horretarako baino ezin dira erabili.
2. Subsidiarioak eta, hala badagokio, osagarriak izango dira prestazioaren titularrari eta gainerako onuradunei legozkiekeen eduki ekonomikoko era guztietako gizarte-baliabide eta -prestazioei dagokienez, bai eta, erregelamenduz ezarritako gero, etxebizitza edo bizitoki berean bizi diren beste pertsona batzuei legozkiekeenean ere.
3. Transferiezinak izango dira, eta, horrenbestez, ezingo dira:
  - a. Obligazio-berme gisa eskaini.
  - b. Laga, ez osorik, ezta partzialki ere.
  - c. Konpentsatu edo deskontatu, salbu eta prestazio horri lotutako bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzeko.
  - d. Atxiki edo bahitu, aplikatzekoa den Estatuko legeria orokorrean aurreikusitako kasuetan eta mugekin izan ezik.
4. Gizarte-larrialdietarako laguntzak diru-laguntzen izaera izango dute, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan helburu horretarako kreditua kontsignatuta egotearen baitan egongo da horiek ematea ala ez. Dena den, euskal administrazio publikoek urtero kontsignatuko dituzte laguntza horiekin zerikusia duten gastuei aurre egiteko aski aurreikusten dizkieten kopuruak, bai urteroko garapen-aginduan ezarritako esleipeneidagozkienak, bai laguntzen kudeaketaz arduratzen diren erakundearen diru-sarrera propioetatik datozenak.





#### **40.-Erreferentziako balio ekonomikoa gizarte-larrialdietarako laguntzei dagokienean**

1. 41.c) eta d) artikuluan adierazitako ondorioetarako, gizarte-larrialdietarako laguntzen erreferentziako balio ekonomikotzat ezartzen da batura hau: oinarritzko zenbatekoa gehi eskatutako prestazioaren onuradun bakoitzaren banakako osagarriak gehi onuradunen ezaugarri-osagarriak.

$$\text{Erreferentziako balio ekonomikoa} |_{\text{GLL}} = \text{Oinarritzko zenbatekoa} + \sum [\text{Heldua}(i)] + \sum [\text{Adingabea}(j)] + \sum \text{EO}(k)$$

Non,

Heldua(i), onuradun heldu bakoitzarentzako banakako osagarriari dagokio.

Adingabea(j), onuradun adingabe bakoitzarentzako banakako osagarriari dagokio.

EO(k), onuradunen ezaugarri-osagarriei dagokie.

2. Oinarritzko zenbatekoa komuna da, onuradunen kopurua gorabehera, eta Euskadiko gutxieneko gastuen adierazleak zehazten du. Zenbateko hori Euskadiko gutxieneko gastuen adierazlearen % 100 izango da.

3. Gehigarritzko osagarrien zenbatekoa oinarritzko zenbatekoaren, edo, kasu jakin batzuetan, prestazioaren titularrari dagokion zenbatekoaren ehunekotan zehazten da, nola eta honela:

a. Banakako osagarriak:

i. Helduak:

(1) Titularra: Oinarritzko zenbatekoaren % 45.

(2) Titularraren ezkontidea edo izatezko bikotekidea: Titularraren osagarriaren % 80.

(3) Gainerako helduak: Titularraren osagarriaren % 50, gehienez ere 4 heldu.

ii. Adingabeak:

(1) Lehenengoa: Titularraren osagarriaren % 60.

(2) Bigarrena: Titularraren osagarriaren % 42.

(3) Hirugarrena eta laugarrena: Titularraren osagarriaren % 30.

(4) Beste batzuk: Titularraren osagarriaren % 24.

b. Onuradunen ezaugarri-osagarriak:

i. Gurasobakartasuna: Titularraren osagarriaren % 50.

ii. Familia-esparruko indarkeria jasan dutenen presentzia: Titularraren osagarriaren % 50.

iii. % 65 edo gehiagoko desgaitasuna dutenen presentzia, eta beste laguntza edo prestaziorik ez jasotzea arrazoi horrengatik: Titularraren osagarriaren % 50.





#### **41.-Gizarte-larrialdietarako laguntzetara iristeko betekizunak**

1. Baldintza hauek betetzen dituztenak izan daitezke, lege honetan aurreikusitako moduan, gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun:

- a. Laguntza eskatzen den udalerrian erroldatuta egotea eta bertan benetan bizitzea, eta Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizitzea eskariaren data baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.

Aurretiko aldi gutxienerako hori bete ezean, eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan erroldatuta egona eta bertan benetan bizi izana beharko du bost urtez jarraian, aurreko hamar urteen barruan.

- b. 18 urtetik gorakoa izatea.

Aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, prestazioari heldu ahal izango diote inguruabar hauetakoren bat duten pertsonak:

- i. Pentsioduna izatea lege honetan jasotakoaren arabera.
  - ii. Ekonomikoki ardurapean edukitzea adingabeak edo lege honetan jasotakoaren arabera mendekotasun-egoeran dauden pertsonak.
  - iii. Familiaren barruko tratu txarren biktima izatea.
  - iv. Aitarik eta amarik gabeko umezurtza izatea, edo gurasoak guraso-ahala baliatu ezinik edukitzea.
  - v. Salbuespenezko bizikidetzaren unitate bateko kide izatea 9.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.
  - vi. Beste pertsona batekin ezkontzaz edo izatezko bikoteen erregistroz elkartuta egotea prestazioaren eskaera-data baino sei hilabete lehenagotik gutxienez.
- c. Lege honen 38.2 artikuluan jasotako berariazko gastuei aurre egiteko behar beste baliabide ez izatea, baldin eta horiek onuradunei eragiten badiete; hala, behar beste baliabide ez dagoela ulertuko da baldintza hauek betetzen direnean:
    - i. Azken urtean edo prestazioen bidez aurre egin nahi zaien gastuek hartzen duten edo hartuko duten denboraldian, errendimenduak, kapitulu honetako II. atalean ezarritakoaren arabera zehaztuak, ez izatea eskatutako prestazioaren onuradunen kopuruaren arabera egokituko litzatekeen erreferentziako balio ekonomikoaren % 150 baino handiagoak.
    - ii. Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun izateko moduko pertsonarik bada, odolkidetasuneko laugarren mailara arteraino edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren gradura arteraino loturik, edo familia-harrerako harreman iraunkor edo adopzio aurreko baten bidez edo tutoretzapeko harreman baten bidez loturik, denen artean ez izatea, dagokion aldirako, aipatu estekez loturik dauden pertsonen guztizko kopuruari begiratuta egokituko litzatekeen erreferentziako balio ekonomikoaren % 300dik gorako errendimendurik.





- d. Eskatutako prestazioaren onuradunen kopuruari begiratuta egokituko litzatekeen erreferentziako balio ekonomikoaren % 400dik gorako ondarrerik ez izatea. Ondarearen balioa kapitulu honetako II. atalean araututakoaren arabera zehaztuko da.
- e. Gizarte-larrialdietarako laguntzak alokairu-gastuei aurre egiteko erabiltzen direnean, etxebizitza-eskatzaille gisa izena emanda egotea etxebizitzaren alorreko eskumena duen sailaren Etxebide zerbitzuan.
- f. Lanbiden erregistratuta egotea erregelamenduz ezarriko denaren arabera, salbu eta zerbitzu horiek beharrezkoak ez direnean, dela adinarengatik dela erregelamenduz zehaztuko diren beste inguruabar batzuegatik. Erregistroa dagokion arauekin bat etorrira egingo da.

#### **42.-Onuradunen betebeharrak.**

Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek betebeharrak izango dituzte:

- a. Prestazioak zein helburutarako eman diren, horretarako erabiltzea.
- b. Eskabidea egin aurretik, baita laguntzak jasotzen dituzten bitartean ere, legokiekeen eskubide edo prestazio ekonomiko oro baliatzea.
- c. Prestazioa eskuratzeko baldintzak betetzeari dagokionez, gerora izandako aldaketak jakinaraztea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.
- d. Onuradunaren ohiko bizilekuari dagokionez edozein aldaketa egonez gero, horren berri ematea, erregelamendu bidez ezarriko den epean.
- e. Bidegabeki jasotako zenbatekoak itzultzea.
- f. Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie.
- g. Gizarte-larrialdietarako laguntzen xedetik eta helburutik sortzen diren betebeharrak guztiak eta erregelamendu bidez ezartzen direnak.

#### **43.-Zenbatekoa finkatzea**

1. Oro har, erregelamendu bidez ezarriko dira lege honen 38.2 artikuluan aurreikusitako berriazko gastu bakoitzerako gehieneko zenbatekoak, gizarte-larrialdietarako laguntza gisa. Inola ere ez da egongo zenbateko horiek gaintzea.
2. Lege honen 38.2 artikuluan aurreikusitako berriazko gastu bakoitzeko eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko zenbatekoa finkatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:
  - a. Eskatzaile bakoitzari aplikatu beharreko gehieneko zenbatekoa, aurreikusitako berriazko gastu bakoitzeko, honako hauek kontuan hartuta kalkulatu da:
    - i. Eskatzailearen eta laguntzen gainerako onuradunen baliabideak.





- ii. Egindako edo egitekoak diren berariazko gastuen zenbatekoa.
  - iii. Artikulu honen 1. apartatuan aipatzen diren gehieneko zenbatekoak.
- b. Aplikatzekoa den gehieneko zenbatekoa honako hauen arabera finkatuko da:
- i. Helburu horretarako kreditu kontsignaturik izatea.
  - ii. Gizarte-zerbitzuek zer balorazio egiten duten gastu-beharraren egoera benetan urgentea izateari buruz, eta laguntza horien egokitasuna premia-egoera horri ekiteko.
3. Erregelamendu bidez ezarriko da bizikidetz-unitate bakoitzak gizarte-larrialdietarako laguntza gisa ondoz ondoko aldietan jaso ahalko duen gehienezko zenbatekoa.

Laguntzak ohiko etxebizitza edo bizitokia eskuratzeko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuetarako erabiltzen direnean, eta etxebizitza-bizitokiari aparteko baliozkotzat irizten zaionean, ezingo dira zenbatekoan, ezta urte-kopuruan ere, erregelamendu bidez ezarriko dena baino handiagoak izan.

Muga horiek ez zaizkie aplikatuko 60 urtetik gorako pentsiodunei.

#### **44.-Prestazioen eta onuradunen aldiberekotasuna**

1. Erregelamenduz zehaztuko da etxebizitza edo bizitoki berean batera existitu daitezkeen gizarte-larrialdietarako laguntzen gehieneko muga. Era berean, laguntza bakoitzarengatik eman daitezkeen gehienezko zenbatekoak ere ezarriko dira aldiberekotasun-kasu horietarako.
2. Bizitegi kolektiboetan lege honetan ezarritakoaren arabera bizi diren pertsonen dagokienez, erregelamenduz zehaztuko da zer baldintzatan izan ahalko diren gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradun. Nolanahi ere, administrazio publiko eskumendunek prestazioa bermatzen ez dizkieten gastu edo zerbitzuak direla eta helduko zaie laguntzei.
3. Etxebizitza edo bizileku berean pertsona batzuk izan badaitezke onuradun eta denek prestazioak eskatzen badituzte gastu berari aurre egiteko, haietako bati bakarrik eman ahal izango zaizkio gizarte-larrialdietarako laguntzak.

#### **45.-Ematea eta ordaintzea**

1. Ebazpenerako proposamen teknikoak barnean hartuko du gizarte-zerbitzuek benetako premia-egoera badagoela egiaztatzea. Proposamen hori organo eskumendunari helaraziko zaio ebatz dezan.
2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak ematen dituen ebazpenean aurreikusitako moduan ordainduko dira laguntzok, eta ebazpena eman duen organoak egingo du ordainketa.







3. Gizarte-zerbitzuek ezarritakoaren arabera, prestazioak zatika edo denak batera ordaindu ahalko dira. Prestazioak emateko ebazpenean, organo eskudunak zehaztuko du nola egingo den zehazki ordainketa, eta epe bat ezarriko du egindako gastuen fakturak edo dagozkien frogagiriak aurkezteko. Fakturak edo frogagiriak aipatutako epean aurkezten ez badira, laguntzak itzularazteko prozedurari ekingo zaio, hala badagokio.

#### **46.-Aldizkako berrikuspenak**

Erregelamenduz zehaztuko den arabera, organo eskudunak egoki iritzi bezainbat aldizkako berrikuspen egin ahalko du, prestazioa ematea eragin zuten arrazoiek bere horretan dirauten egiaztatzeke. Ondorio horretarako, laguntzen onuradunei Administrazioaren aurrean ager daitezela eta lagun diezaiotela eskatu ahalko zaie.

## **II. KAPITULUA. PRESTAZIO EKONOMIKOEN ARAU ERKIDEAK**

### **I. ATALA. BALIABIDEAK BERE OSOAN HARTZEA**

#### **47.-Baliabideak bere osoan hartzea**

1. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren ondorioetarako, eskatzailearen eta haren bizikidetz-unitateko gainerako kideen baliabide guztiak zenbatuko dira.
2. Pentsiodunentzako errenta bermatuaren ondorioetarako, pentsiodunen guneko baliabide guztiak zenbatuko dira.
3. Gizarte-larrialdietarako laguntzen ondorioetarako, eskatzailearen eta gainerako onuradun posibleen baliabide guztiak zenbatuko dira.

#### **48.-Errendimenduak zehaztea**

1. Errendimenduak zenbatzerakoan, norberaren konturako edo besteren konturako lanetik, ondaretik, pentsioetatik edo beste edozein titulutatik datozenak hartuko dira kontuan. Erregelamenduz zehaztuko den eran, lege honen ondorioetarako errendimendutzat hartuko dira, orobat:

- a. Eskubide ekonomikoak baliarazi ez izanaren ondorioz eskuratu gabe geratu diren errendimenduak, are prestazioa eskatzearen aurretik.





- b. Erregelamenduz ezarriko diren zenbatekoak, diru bihurtzen zaila den ondare higiezin dagoenean, jaraunspenez, legatuz edo dohaintzaz jasoa, lege honen 13.f.i eta 21.g.i artikuluetan ezarritako mugak gainditzen direnean.
  - c. Administrazio publikoek finantzaturiko establezimendu kolektibo koordainketarik gabekoetan bizi direnen mantenuari dagokion gauzazko balioa.
  - d. Erregelamenduz zehaztuko diren zenbatekoak, baldin eta justifikaziorik gabeko galera ekonomikorik badu bizikidetz-unitateko edo, hala badagokio, pentsiodunen guneko kideren baten ondareak.
2. Erregelamenduz zehaztuko denaren arabera, errendimenduen zenbaketatik kanpo geratuko dira helburuzko izaera duten gizarte-sarrera eta -prestazio jakin batzuk.
- Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitatea laneko diru-sarrerak osatzeko errenta denean, eta enplegurako pizgarria sendoagoa izan dadin, zenbaketa horretatik kanpo utziko dira, erregelamenduz zehaztuko den moduan, lanetik datozen diru-sareren ehuneko jakin batzuk, lana norberaren konturakoa zein besteren konturakoa izan.
3. Errendimenduen zehaztapena hilekoa denean, hileko zenbateko onartua kalkulatzeko baliatu hilabeteari buruzkoa izango da. Hilabetetik gorakoa denean, kontuan hartutako aldiaren barruko hilabetei buruzkoa izango da.

#### **49.-Ondarea zehaztea**

1. Ondarearen zenbaketaren ondorioetarako, ondasun higigarri eta ondasun higiezin guztiak hartuko dira kontuan, betiere haien gaineko jabetza-, edukitza- edo gozamen-titulu juridikoa badu.
  2. Ondarearen baloraziotik kanpo geratuko dira ohiko bizileku den etxebizitza edo bizitokia eta lan-jarduerarako erabiltzen den higiezin, salbu eta jabetzako etxebizitzak aparteko balioa duenean erregelamenduz zehaztuko denaren arabera.
- Orobat, etxeko hornidura ere ez da kontuan hartuko ondarearen balioa zehazterakoan, salbu eta, erregelamendu bidez ezarriko den moduan, aparteko balioa duten ondasunak badaude hornidura horretan.
3. Jaraunspenez, legatuz edo dohaintzaz jasotako ondarrerik bada, eta hala dagokionean, lege honen 13.f.i eta 21.g.i artikuluetan ezarritako mugak gainditzen badira, eta, betiere, premia-egoera objektiborik bada, diru bihurtzen zailtzat jo ahal izango da ondare hori erregelamenduz zehaztuko diren eduki eta ondorioekin.





### III. ATALA. PRESTAZIOEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

#### **50.-Bidegabeki jasotako kopuruak erreklamatu beharra**

1. Lege honetan aurreikusitako edozein prestazio ematea dagokion administrazioak kobratu beharko ditu bidegabeki jasotako prestazioak.
2. Bidegabeki jasotako kopuruak itzultzetik datozen zenbatekoak hasieran aplikatu ziren helburu bererako erabili beharko dira, ezarriko den prozeduraren arabera.

#### **51.-Bidegabeki jasotako kopuruak**

Bidegabeki jasotako kopuruak sortuko dira baldin eta egiaztapen egokiak egin ondoren ikusten bada:

- a. Arauz ezarritako betekizunak bete gabe jaso zela prestazioa, prestazioa azkentzeko arrazoiren bat dela, edo prestazioa lortu dela horretarako eskatu baldintzak faltsututa edo prestazioa jasotzea eragotziko luketenak ezkutatuta.
- b. Bizikidetzaren unitateari edo pentsiodunen guneari zegokion zenbatekoa baino handiagoa jaso zela prestazioarengatik.
- c. Jasotako gizarte-larrialdietarako laguntza ez zela justifikatu zegokion epean.

#### **52.-Bidegabeki jasotako kopuruak itzultzeko erantzukizuna**

1. Alde batera utzi gabe izan ditzaketen beste erantzukizun batzuk, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharra izango dute jasotzaile izaera duten onuradunek, eta prestazioa jaso dutenek hirugarren baten nortasunaz baliatuta edo, hala badagokio, nortasun faltsua erabilita.
2. Bidegabeki jasotako kopuruak itzultzeko betebeharraren erantzukizun nagusia jasotzailearena izango da, eta erantzukizun subsidiarioa, berriz, prestazioa bidegabeki jasotzen den unean bizikidetzaren unitateko edo pentsiodunen guneko kide diren gainerakoena.
3. Jaraunspen jasogabeak edo, hala badagokio, jaraunsleek kopuru hauengatik erantzungo dute: kausatzailea hil baino lehen ebazpenez bidegabeki jasotzat deklaratuakengatik.





### **53.-Prozedura**

1. Bidegabeki jasotako kopururik badela egiaztatuz gero, dagokion itzulketa-prozedura hasiko du organo eskudunak, jasotzaileen itzuli beharra deklaratzeko.
2. Itzulketa-prozedura ebatzi eta ebazpena jakinarazteko gehieneko epea sei hilabete izango da, prozedura hasi zenetik. Epe hori amaitu eta ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, prozeduraren iraungitzea gertatuko da, eta iraungitzea deklaritzen duen ebazpenak jarduketak artxibatzea aginduko du, salbu eta prozedura gelditu bada interesdunari egoz dakioken arrazoiren batengatik.

### **54.-Preskripzioa eta iraungitzea**

1. Arau orokor gisa, bidegabeki jasotako kopuruak itzuli beharra urtebetera preskribatuko da, kobratu eta hurrengo egunetik hasita.

Hala ere, bidegabeki jasotako kopuruak sortuz gero lege honetan jasotako arau-hauste gisa tipifika daitekeen jarduketa baten ondorioz, hau izango da preskripzio-epea:

- a. Arau-hauste arintzat tipifika daitezkeen jarduketan kasuan, 2 urteko epea izango da, jaso ziren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
  - b. Arau-hauste astuntzat tipifika daitezkeen jarduketan kasuan, 4 urteko epea izango da, jaso ziren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
  - c. Arau-hauste oso astuntzat tipifika daitezkeen jarduketan kasuan, 10 urteko epea izango da, jaso ziren egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
2. Prestazioak oroharreko zenbatekoan eta behingoan jasotzeko eskubidea urtebetera iraungiko da, interesdunari prestazioa eman zaiola behar bezala jakinarazi zaion egunaren biharamunetik kontatzen hasita.
  3. Prestazio periodikoak direnean, hilabete-sari bakoitza jasotzeko eskubidea muga-egunetik urtebetera iraungiko da.

### **55.-Prestazio eta laguntza ekonomikoen zenbateko osoa**

1. Bizikidetzaren unitatearen diru-sarrerei gehituz gero bizikidetzaren unitate berari eman dakizkiokeen prestazioak eta laguntza ekonomikoak, diru-sarrerak bermatzeko errentaren, pentsiodunentzako errenta bermatuaren eta gizarte-larrialdietarako laguntzen ondoriozkoak, batura horren urteko guztizko zenbatekoak ezingo du gaintu, inola ere, kopuru hau: titularraren bizikidetzaren unitatearen ezaugarri berberak dituen bizikidetzaren unitate bati urtean zegokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentari aplikatu dakiokeen gehieneko errenta bermatuaren % 200.
2. Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunen kasuan, baldin eta betetzen ari den urtean ez badira eskubidezko prestazio ekonomiko baten titular izan, onuradunen diru-sarrera konputagarrien eta gizarte-larrialdietarako laguntza gisa emandako urteko



zenbatekoaren guztizkoaren baturak ezin izango du, inola ere, kopuru hau gainditu: titularraren bizikidetzaren unitatearen ezaugarri berberak dituen bizikidetzaren unitate bati urtean zegokiokeen diru-sarrerak bermatzeko errentari aplikatu dakiokeen gehieneko errenta bermatuaren % 200.

3. Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunek ohiko etxebizitza edo bizitokia eskuratzeko hartutako kredituen interesek eta amortizazioak eragindako gastuei aurre egiteko jaso ahalko duten gehieneko zenbatekoak ezin izango du erregelamendu bidez ezarritakoa gainditu.

### **III. ATALA. BATERAGARRITASUNAK ETA BATERAEZINTASUNAK**

#### **56.-Bateraezintasunak eta bateragarritasunak**

1. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta pentsiodunentzako errenta bermatua bateragarriak izango dira elkarrekin.

2. Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta pentsiodunentzako errenta bermatua bateragarriak izango dira gizarte-larrialdietarako laguntzekin, 38.2.a.i artikuluan aipatutako gastuekin salbu.

Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta pentsiodunentzako errenta bermatua bateragarriak izango dira etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, 3/2015 Legeak, Etxebizitzarenak, aurreikusitako duena, etxebizitza duin eta egoki bat legez okupatzeko eskubide subjektiboa betetzeko.

3. 38. artikuluan aurreikusitako gizarte-larrialdietarako laguntzak bateragarriak izango dira etxebizitzako prestazio ekonomikoarekin, erregelamenduz zehaztuko diren baldintzetan, salbu eta 2.a apartatuan aipatutako gastuei aurre egiteko laguntzak, ez baitira bateragarriak izango.

### **IV. ATALA PROZEDURAKO ARAU ERKIDEAK**

#### **57.-Eskabidea**

1. Lege honetan araututako eskubidezko prestazio ekonomikoak jaso ahal izateko, interesdunak eskabide bat zuzenduko dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, eta eskabide hori aurrez aurre erregistratuko da organismo horrek zehaztuko duen Lanbide-





Euskal Enplegu Zerbitzuaren bulegoan, zeinak izapidetzerako behar den informazio eta orientazio guztia emango baitio eskatzaileari.

2. Gizarte-larrialdietarako laguntzak jaso ahal izateko, interesdunak eskabide bat egin beharko du erroldatuta dagoen eta benetan bizi den udalerriko udalari zuzenduta, eta aurrez aurre erregistratuko du dagokion gizarte-zerbitzuetan, zeinek izapidetzerako behar den informazio eta orientazio guztia emango baitiote eskatzaileari.

3. Dokumentu hauek aurkeztu beharko dira eskabidearekin batera: lege honetan eta berau garatzeko arauetan kasu bakoitzerako ezartzen diren eskakizunak betetzen direla justifikatzeko behar direnak.

Ez da beharrezkoa izango Administrazioaren esku dagoen eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak zuzenean eskura dezakeen dokumentazioa eranstea, ez eta, gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, udalek zuzenean eskura dezaketena ere. Horrenbestez, organo eskudunek nahitaezko datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkiete beste administrazio, erakunde publiko edo erakunde pribatuei. Hori guztia, ongi errespetatuta izaera pertsonaleko datuak babesteko legediko datu-kalitatearen printzipioa.

## **58.-Instrukzioa**

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egingo du eskubidezko prestazio ekonomikoen espedientearen instrukzioa. Hark egiaztatuko du aurkeztutako eskabidearen edukia, eta, alde horretatik, beharrezko diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei edo entitate publiko zein pribatuei, edo eskatzaileari berari.

2. Lehenik eta behin pentsiodunentzako errenta bermatua izapidetuko da, eta, hala badagokio, emango; bigarrenik, diru-sarrerak bermatzeko errenta.

3. Eskabidea aurkeztu den udalerriko udalak egingo du gizarte-larrialdietarako laguntzen espedientearen instrukzioa. Hark egiaztatuko du aurkeztutako eskabidearen edukia, eta, alde horretatik, beharrezko diren datu eta txosten guztiak eskatu ahal izango dizkie beste administrazio batzuei edo entitate publiko zein pribatuei, edo eskatzaileari berari, hargatik eragotzi gabe Eusko Jaurlaritzak gerora garatu beharko dituen gainerako jarduketak, kontrol, jarraipen eta ikuskapenerakoak.

4. Artikulu honetako lehenengo eta hirugarren paragrafoek aipatutako datuak eta txostenak mugatuko dira lege honetan ezarritako betekizunak eta betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko ezinbestekotzat jotzen direnetera. Hori guztia, ongi errespetatuta izaera pertsonaleko datuak babesteko legediko datu-kalitatearen printzipioa.

## **59.-Izaera ekonomikoko baliabide eta prestazioak egiaztatzea**

1. Eskubidezko prestazio ekonomikoetarako eskarien kasuan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatuko du pentsiodunen guneko kideen edo, hala badagokio, bizikidetz-unitateko kideen eskubide izan daitezkeen izaera ekonomikoko baliabide eta



prestazio sozialak oso-osorik baliatu edo eskatu direla. Gizarte-larrialdietarako laguntzen kasuan, eskabidea aurkeztu den udalerriko udalari egokituko zaio egiaztapen hori

2. Pentsiodunen guneko kideak, edo, hala badagokio, bizikidetz-unitateko kideak izaera ekonomikoko eskubideren baten hartzekodun badira eta ez badute baliatu edo eskatu —barnean hartuta mantenu-eskubidea ezkontzako elkarbizitza egiazki bukatu dela egiaztatzen den kasuetan—, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, diru-sarrerak bermatzeko errenta edo pentsiodunentzako errenta bermatua eskatu denean, edo dagokion udalak, gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu direnean, eskatzaileari eskatuko diote ezen, espedientearen instrukzioa amaitu aurretik, bere eskubideak baliatu edo eskatu ditzala indarreko legerian ezarritakoaren arabera.

Prestazioetako edozeinen titularrek betebeharrak berbera izango dute eskubide horiek prestazioa eman eta gero sortuak direnean.

3. Aurreko apartatuan aipatutako betebeharrak betetzen ez bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, eskubidezko prestazio ekonomiko bat eskatu denean, edo dagokion udalak, gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu direnean, berrikusi egingo dute espedienteak.

## **60.-Ebazpena, ebazteko epea eta administrazioaren isiltasuna**

1. Emateko edo ukatzeko ebazpena, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta pentsiodunentzako errenta bermatuaren kasuan, Eusko Jaurlaritzari dagokio, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eta, gizarte-larrialdietako laguntzen kasuan, eskabidea egin zaion udalerriko udalari.

2. Ebazteko eskumena duen organoak gehienez ere bi hilabeteko epean emango du prestazioa onartzeko edo ukatzeko ebazpena, dagokion eskabidea aurkezten denetik kontatzen hasita.

Epea amaitzen bada ebazpen espresurik eman gabe, eskatutakoa diru-sarrerak bermatzeko errenta eta pentsiodunentzako errenta bermatua badira, prestazioak eman direla ulertuko da, eta gizarte-larrialdietarako laguntzak eskatu badira, berriz, laguntza ukatu dela.

3. Aurreko apartatuan aipatutako epeak eten egingo dira baldin eta prozedura gelditzen bada eskatzaileari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik.

Ondorio horretarako, eskatzaileari egotzeko moduko arrazoitzat joko da interesdunari errekerimendua egitea akatsak zuzendu eta dokumentuak eta beharrezko diren beste datu batzuk ekar ditzan, eta etenaldia joango da errekerimendua izapidea jakinarazteko lehen ahaleginetik, edo entzunaldi-izapidetik, eskatutakoa benetan bete arteraino edo, halakorik ezean, emandako epea igaro arteraino





### **61.-Konfidentziasuna**

Euskal administrazio publikoek bermatuko dute organismo eskudunek espedienteak izapidetzerakoan lortutako datuen konfidentziasuna, une bakoitzean datu-babesari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan. Aurrekoa horrela izanik ere, ulertu beharko da administrazio publikoek, herritarrak hobeto artatuko badituzte, beren artean lankidetzan aritu beharra dutela, eta, ildo horretatik, komeni dela komunikazio-bideak ezartzea, horiei esker informazioa emateko sistema arina eta etengabe eguneratua egon dadin eta euskal administrazio publikoek informazio-mota jakin batzuk parteka ditzaten; betiere, beharrezko irizten zaien segurtasuneko dispositibo guztiak aplikatuta.

### **62.-Errekurtsoak**

Dagozkion errekurtso administratibo eta jurisdikzionalak aurkeztu ahal izango dira organo eskumendunak emandako ebazpenen aurka.

## **III. TITULUA GIZARTE- ETA LAN-INKLUSIORAKO TRESNAK**

### **I. KAPITULUA. INKLUSIO-HITZARMENA**

#### **63.-Definizioa eta izaera**

Lege honen ondorioetarako, inklusio-hitzarmena dokumentu bat da, zeinean alderdi parte-hartzaileek ezartzen baitituzte bi alderdien eskubideak eta betebeharrak, gizarte-eta/edo lan-alorrekoak izan daitezkeenak.

#### **64.-Hartzaileak**

1. Hauek izango dira inklusio-hitzarmenen hartzaile: eskubidezko prestazio ekonomikoen titular edo onuradunak, lan egiteko adinean daudenak, salbu eta ezintasun iraunkor absolutuarengatik pentsioa, baliaezintasun handiarengatik pentsioa edo baliaezintasuneko kotizazio gabeko pentsioa jasotzen badute.
2. Inklusio-hitzarmenen hartzaile izan daitezke, halaber, eskubidezko prestazio ekonomikoaren titular edo onuradun izan gabe ere, lan-inklusionarako esku-hartze edo







jarduketa espezifiko bat behar dutenak, hala eskatzen badute. Halakoetan, langabezia-prestazio baten titularrak izan daitezke edota inongo prestazio ekonomikorik ez dutenak.

### **65.-Inklusio-hitzarmenaren edukia**

1. Inklusio-hitzarmenak ezartzen ditu alderdi esku hartzaileek lan-inklusioren alorrean berenganatutako konpromisoak, Lanbidek edo beste administrazio batzuen erreferentziako profesionalak proposatutakoak.

Bizikidetz-unitate beraren barruan baldin bada enplegurako gaitasuna duen pertsonarik, eskubidezko prestazio ekonomikoen titular edo onuradun izan dena 24 hilabete baino luzaroago jarraian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hitzematzen du lan-prestakuntza eta -aktibaziorako jarduketa espezifikoak eskainiko dizkiola aipatu unitateko kide bati gutxienez.

2. Titularrak eta, hala badagokie, beste onuradun batzuek behar izanez gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren iritiz, gizarte-inklusiara bideratutako jarduketa batzuk, gizarte-zerbitzu, etxebizitza, osasun edo hezkuntzako sistemen ardurapekoak, inklusio-hitzarmenak bere edukien artean sartuko du titularraren eta, hala badagokie, onuradunen konpromiso hau: aipatu zerbitzu publikoetara joko dutela arreta jasotzera.

Halakoetan, sistemek diseinatutako gizarte-inklusioko jarduketak bete beharko dituzte, eta, bereziki, arreta pertsonalizatuko plana, erreferentziako gizarte-zerbitzuak halakorik definitu badu. Betebehar horiek inklusio-hitzarmenean sartuko dira.

Zuzenean lan-inklusiara bideratutako jarduketetan parte hartzea bideragarri ez bada epe labur edo ertainera, aurreko apartatuan aipatutako gizarte-inklusioko jarduketetara mugatuko da inklusio-hitzarmenaren edukia.

3. Inklusio-hitzarmenetan ezingo dira sartu lan-harreman izaerakotzat jo daitezkeen jarduketak.

4. Inklusio-hitzarmenean zehaztuko da zer maiztasunekin egingo den hitzarmenaren aplikazioaren ebaluazioa.

### **66.-Esku hartzen duten aldeak**

Inklusio-hitzarmenetan esku hartuko duten alderdiak dira, alde batetik, Eusko Jaurlaritza, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, eta bestetik, hitzarmen horien hartzaile izan daitezkeen pertsonak.

### **67.-Prozeduraren hasiera**

1. Inklusio-hitzarmen bat prestatu eta sinatzeko prozedura ofizios hasiko da 64.1 artikuluan jasotako kasu guztietan.





2. Aurreko apartatuan sartzen ez den pertsonarik bada berariazko laguntzak behar dituen bere lan-inklusioari begira, inklusio-hitzarmen bat prestatzea eska dezake, eskabidea aurkeztuta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bere bulegoen artetik zehazten dionean.

### **68.-Inklusio-hitzarmenerako erreferentziako profesionala**

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak erreferentziako profesional bat izendatuko du lan hauetaz ardura dadin: inklusio-hitzarmenaren negoziazioa, sinadura eta jarraipena.

2. Sistema ezberdinen arteko jarduketa konbinatuak erabakiz gero, edota Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaz kanpoko sistemei bakarrik lotuak, sistema horri atxikitako erreferentziako profesional bat izendatu beharko da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko erreferentziako profesionala lankidetzan ariko da halakoetan erreferentziako profesional berriarekin, azken honek eskatuz gero.

3. Aurreko puntuan aurreikusitako ondorioetarako, dagozkion zerbitzuak bideratzeko protokoloak egongo dira, erregelamenduz ezarriko den moduan ezarri eta diseinatuak.

### **69.-Esku hartzen duten alderdien betebeharrak**

1. Inklusio-hitzarmen bat sinatzeak konpromisoa dakarkie esku hartzen duten alderdiei, eta betebeharrak ondorioztatzen dira konpromiso horretatik.

2. Inklusio-hitzarmenaren hartzaileren betebeharrak izango dira:

- a. Sinatutako inklusio-hitzarmenean hitzartutako jarduketa guztiak egitea, hitzarmenaren xede-helburuetatik ondorioztatzen diren neurrian.
- b. Hitzartutako jarduketak garatzeko aukeran eragina izan dezaketen gertatutako aldaketan berri ematea.

3. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokionez, haren betebeharra izango da momentu bakoitzean zerbitzu irisgarri eta egokituaren eskaintza bermatu ahal izatea, hitzarmenean maila konkretu eta indibidualen negoziatutako eta sinatutako konpromisoak bete ahal izateko. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak ziurtatuko dira, bai giza baliabideak eta baita tresneriari dagokionez ere.

4. Nolanahi ere, eta inklusio-hitzarmena sinatzean hartutako konpromisoak gorabehera, konpromiso horiek garatzeak ezin izango du inoiz oztopatu ez hitzarmenaren hartzailerekin enplegu bat lortzea, ezta hitzarmenean aurreikusi gabeko prestakuntza-prozesuren batean sartzea ere. Halakoetan, dagokion berrikuspenera egingo zaio hitzarmenari.

5. Inklusio-hitzarmenetan jasotako jarduketak eta esku-hartzeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak antolatu eta abiaraziko ditu. Horretarako, bere programa eta zerbitzuez gain, beste administrazio publiko batzuek eta erakunde publiko zein



pribatuek lan-inklusioari begira garatutako programak eta zerbitzuak ere erabili ahal izango ditu. 64.2 artikuluan aipatutako kasuei dagokienez, gizarte-inklusiara bideratutako jarduketak beste sistema batzuetan kokatuta badaude, sistema horiei egokituko zaie jarduketok garatzea.

#### **70.-Ebazpena, ebazteko epea eta administrazioaren isiltasuna**

1. Eusko Jaurlaritzak emango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez, inklusio-hitzarmena sinatzea edo ez sinatzea erabakitzen duen ebazpena.
2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak hiru hileko gehieneko epea izango du ukatze-ebazpena eman eta jakinarazteko edo dagokion hitzarmena sinatzeko, epe hori eskabidea dagokion erregistroan sartu den egunetik kontatzen hasita.
3. Aurreko paragrafoan aipatzen den epea amaituta, ez baldin bada luzapenerako berariazko ebazpenik eman eta jakinarazi, edo ez baldin bada inklusio-hitzarmena sinatu, horretarako arrazoiak eskatzailearen erantzukizun eskusibokoak izan gabe, onetsizat joko da hitzarmen-eskaera.

#### **71.-Berrikuspena, aldaketa eta aldi bateko etendura**

1. Inklusio-hitzarmenean ezarritako periodikotasunaren arabera egingo da hitzarmenaren ebaluazio periodikoa. Ebaluazio horren arabera, edo esku hartzen duten alderdiek, haietako batek eskatuta, adosten dutenean, edo ezinbesteko inguruabarrek aginduta, berrikusi egingo da inklusio-hitzarmenaren edukia edo hitzarmenaren etendura erabakiko.
2. Titularrari ezinezko zaionean inklusio-hitzarmena betetzea, aldi baterako etengo da hitzarmenak eragindako konpromisoak bete beharra, harik eta ezintasun-egoera desagertu edo aldatzen den arte.

#### **72.-Askatzeko arrazoiak**

Honako hauek izango dira inklusio-hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak:

- a. Hitzarmenean aurreikusitako inklusio-helburuak lortzea.
- b. Hartzaileak hitzemandako jarduerak ez egitea hari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio.
- c. Alderdi parte-hartzaileek hitzarmena askatzeko akordioa lortzea.
- d. Hitzarmenari jarri zitzaion epea betetzea, salbu eta luzatzea adostu bada.
- e. Ordenamendu juridikoan aurreikusitako gainerako arrazoiak.





### **73.-Konfidentzialtasuna**

Euskal administrazio publikoek bermatuko dute organismo eskudunek inklusio-hitzarmenak izapidetzerakoan lortutako datuen konfidentzialtasuna, une bakoitzean datu-babesari buruz indarrean dagoen legedian aurreikusitako moduan.

Aurrekoa horrela izanik ere, ulertu beharko da administrazio publikoek, herritarrak hobeto artatuko badituzte, beren artean lankidetzan aritu beharra dutela, eta, ildo horretatik, komeni dela komunikazio-bideak ezartzea, horiei esker informazioa emateko sistema arina eta etengabe eguneratua egon dadin eta euskal administrazio publikoek informazio-mota jakin batzuk parteka ditzaten; betiere, beharrezko irizten zaien segurtasuneko dispositibo guztiak aplikatuta.

### **74.-Errekurtsoak**

Dagozkion errekurtso administratibo eta jurisdikzionalak aurkeztu ahal izango dira ezesteko ebazpenen aurka.

## **II. KAPITULUA. GIZARTE- ETA LAN-INKLUSIORAKO PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK**

### **75.-Gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako esku-hartzeen motak**

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran dauden pertsonen gizarte- eta lan-inklusioren helburuak beharrezko du, batetik, enpleguaren alorreko programak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea, lan-inklusiara bideratutako jarduerak antolatu ahal izateko inklusio-hitzarmenen esparruan, eta bestetik, gizarte-babesaren beste arlo batzuetako programak, zerbitzuak edo zentroak ezartzea; bereziki ,gizarte-zerbitzuetan, osasun-zerbitzuetan, hezkuntza-sisteman eta etxebizitza-zerbitzuetan.

### **76.-Gizarte-inklusiara bideratutako gizarte-zerbitzuak**

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemak eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemak koordinatu egin beharko dituzte beren plangintza-tresnak eta haien barruko jarduerak. Era berean, erregelamenduz zehaztuko dira sistema guztiek batera jarduteko protokolo guztiak; bereziki, aipatutako bi sistemek osasun-, hezkuntza- eta etxebizitza-arloekin batera jardutekoa.





## **77.-Gizarte-inklusiara bideratutako laneratze- eta enplegu-programak eta zerbitzuak**

1. Euskal administrazio publikoek, prestakuntza- eta enplegu-gaietan dituzten eskumenen eremuan, lan-merkatuan sartzera faboratu eta erraztera bideratutako neurriak jarri beharko dituzte pertsona edo talde jakin batzuentzat; hain zuzen ere, beren ezaugarriengatik lan-merkatuan baldintza berberetan sartzerik ez dutenentzat edo hala sartzeko zailtasunak dituztenentzat. Neurri horien artean hauek egon daitezke:

- a. Enplegurako lanbide-heziketa.
- b. Laneko bitartekaritza.
- c. Laneratze laguntza eta babesak.
- d. Enplegu lagundua.
- e. Laneratze enpresak sortzeko eta mantentzeko laguntza.
- f. Enplegu-zentro bereziak bazterketa-arriskuan edo -egoeran daudenei irekitzeko laguntza.
- g. Bultzada ematea bazterketa-egoeran dauden pertsonak lan-merkatu arruntean kontratatzeari.
- h. Kontratu publikoetan klausula sozial batzuk sartzera, baztertuta edo laneratze bidean daudenak kontratatzen dituzten erakundeei lehentasuna ematen dietenak.
- i. Familia eta lana uztartzeko politiken esparruko laguntza-neurriak.
- j. Laneratzea erraztera bideratutako finantzaketa-tresnak sustatzea.
- k. Berariazko ekintzak hezkuntza-mundutik lan-mundura igarotzeko, prestakuntza-ibilbideak amaitzean lehenengo lan-esperientzia errazteko moduan.

Aurreko apartatuan aurreikusitako neurriak arautzean eta ezartzean, prestakuntzan eta enpleguan eskumena duten euskal administrazio publikoek beren aurreikuspen eta jarduerak koordinatu beharko dituzte Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren aurreikuspen eta jarduerekin. Koordinazio horren helburua izango da hauek bermatzea: jarduera guztien efikazia, baliabideen arazoizko erabilera eta bazterketa-egoeran daudenezako arretaren jarraitutasuna, inklusio-hitzarmenetan diseinatutako ibilbide pertsonalizatuaren barruan.

## **78.-Gizarte-inklusioko programak eta zerbitzuak beste jarduera-eremu batzuetan**

Gizarte-bazterketaren arazoak anitzak eta askotarikoak dira, eta, beraz, gizarte-babeserako sistema eta politika publiko guztiek hartu behar dute partekatutako xedetzat gizarte-inklusioren helburua. Horrenbestez, helburu hori lortzeko bideratutako neurriak jarri beharko dira haien oinarriko jarduera-eremu guztietan; batez ere, sistema hauetan: hezkuntza, enplegua, gizarte-zerbitzuak, osasuna eta etxebizitza-politika publikoa.



#### **IV. TITULUA. DIRU SARRERAK BERMATZEKO ETA INKLUSIORAKO EUSKAL SISTEMAREN PLANIFIKAZIOA ETA GARAPENA**

##### **79.-Xedapen orokorrak**

1. Dagokien plangintzan, euskal administrazio publikoek era antolatuan eta koordinaturik definitu beharko dituzte helburuak eta horiek lortzeko beharrezkoak diren tresnak, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren barruan, lurralde osoan lehentasunezko jarduera-ardatz komunak ezartzeko eta babes-maila homogeneousak sustatzeko.
2. Aurreko apartatuan aipatutako planifikazioa Inklusiorako Euskal Planaren bitartez gauzatuko da Autonomia Erkidegoaren eremuan, eta hau bermatu beharko da plan hori prestatzerakoan: zuzenean parte hartuko dutela euskal administrazio publiko guztiek, bai eta beste erakunde publiko eta pribatu batzuek eta Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek ere.
3. Inklusiorako Euskal Plana gauzatzeko, foru-aldundiek eta udalek edo udalen elkarteek beren programak garatuko dituzte beren lurraldeetako jarduera-eremuetan.
4. Inklusiorako Euskal Planak markatutako ildoak garatuz, eta ildo horiekin koordinatuta, plan bereziak egin ahalko dira, auzo, udal, eskualde edo beste eremu geografiko batzuetarako, baldin eta, degradatuago daudelako eta langabezia, pobrezia eta/edo gizarte-bazterketako tasa handiak dituztelako, ekintza integraleko plan bat behar badute epe labur edo ertainean.

##### **80.-Plangintza-printzipioak**

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema egituratzeko, plangintza-printzipio hauek egokituko dira haren diseinua eta funtzionamendua:

- a. Denbora- eta geografia-plangintza, gizarte- eta lan-inklusiara bideratutako helburu zein tresnena, hurbiltasun-irizpidea bereziki kontuan hartuta, eta gizarte-babeseko beste arlo batzuetan dauden jarduera-plan autonomikoetan jasotako aurreikuspenekin koordinaturik; batez ere, gizarte-zerbitzuetan, enpleguan, hezkuntzan, etxebizitzan eta osasunean daudenekin.
- b. Lurralde-oreka eta -homogeneotasuna, zerbitzuak geografikoki banatuta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle guztiei zerbitzuak baliatzeko aukera berberak bermatzeko eran.
- c. Modu integral, malgu, arrazional eta efizientean aprobeztatzea eskura dauden baliabide guztiak, formalak eta informalak, publikoak eta pribatuak, esku-hartzeak koordinatzeko eta sarean lan egiteko formula efikazetan oinarrituta.



- d. Aurrekontu-zuzkidura nahikoa aurrekontu orokorretan.

### **81.-Inklusiorako Euskal Plana**

1. Inklusiorako Euskal Planak era koordinatu eta globalean jasoko ditu administrazio eskudunen jarduera orientatu behar duten esku hartzeko eta jarduteko ildo eta jarraibideak, bazterketa-arriskuan edo bazterketa-egoeran daudenak gizarteratzea lor dadin. Plana bost urtekoa izango da.
2. Gizarte Inklusiorako Erakunde arteko Batzordeak prestatuko du planaren proposamena, eta Eusko Jaurlaritzari egokituko zaio onartzea, Gizarte Inklusiorako Euskal Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren. Plana onartu eta gero, Jaurlaritzak Eusko Legebiltzarrari bidali beharko dio, komunikazio gisa.
3. Inklusiorako Euskal Planak honako ezaugarri hauek izango ditu:
  - a. Gizarte- eta lan-inklusiorako beharrezkoen diagnostikoan eta haien eboluzioaren pronostikoan oinarrituko da.
  - b. Helburuak, ardatz estrategikoak eta horietako bakoitzeko ekintzak definituko ditu, garatzeko eta lortzeko epeak ezarriko ditu eta horretarako erakunde edo organo eskudunak zein diren zehaztuko.
  - c. Plana bera modu sistematiko eta jarraituan ebaluatzeko mekanismoak ezarriko ditu.
4. Euskal administrazio publikoek Inklusiorako Euskal Planaren eta gizarte- eta lan-inklusiorako prozesuei eragiten dieten erakunde eta sail arteko beste plan batzuen arteko koherentzia eta sinergiak bultzatuko dituzte; batez ere, plan horren eta gizarte-zerbitzuetako eta enplegu, hezkuntza, etxebizitza, osasun eta arreta soziosanitarioko planen artekoak.

### **82.-Inklusiorako programak**

Inklusiorako Euskal Plana euskal administrazio publikoek, bakoitzak bere eskumen-eremuan, egiten eta garatzen dituzten programen bitartez gauzatuko da.

### **83.-Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren tresna tekniko erkideak**

1. Gizarte-inklusioaren eremuan esku hartzeko irizpideen homogeneotasuna bermatzeari begira, euskal administrazio publikoek tresna erkideak aplikatuko dituzte balorazio eta diagnostikorako eta esku-hartze pertsonalizaturako; zehazki, 353/2013 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzkoa, 385/2013 Dekretua, 385/2013 Dekretua, gizarte-bazterketa





balioesteko tresna onartzekoa, eta 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

2. Horretarako, erregelamenduz ezarriko diren tresna tekniko eta informatikoak baliatuko dituzte euskal administrazio publikoek. Gizarte-zerbitzuek eta enplegu-zerbitzuek era bateratuan balidatu beharko dituzte teknika eta tresna horiek, eta informazio-trukea eta datuen konparagarritasuna erraztuko dute.

3. Aurreko apartatuan aurreikusitako jarduerak gauzatzekoan, informazioa diseinatu, bildu, ustiatu eta zabaltzeari dagokionez, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak lankidetzan eta koordinaturik jardungo du gizarte-babeserako beste sistema eta politika publiko batzuekin, estatistika-informazioa eraginkortasun handiagoz ezagutzeko, ustiatzeko eta zabaltzeko, arreta-sarreraren magnitude nagusien ezagupen osoa lortze aldera. Lehentasunezkoa izango da estatistikako euskal plan eta programak garatzeaz arduratzen diren erakunde eta organoekiko lankidetzan eta koordinazioa.

#### **84.-Arretaren kalitatea hobetzea, profesionalak prestatzea eta ikertzea**

1. Kalitateko arreta eta arretarako estandarren hobekuntza bermatzeko, gizarte- eta lan-inklusioaren gaitan eskumena duten euskal administrazio publikoek kalitatearen kanpoko ebaluaziorako eta hobekuntza etengabeko metodo frogatuak aplikatu daitezkeen sustatuko dute, beharrezko erantzutean eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistema kudeatzeko egituren funtzionamenduan zer disfuntzio edo gabezia dauden zehazteko.

2. Euskal administrazio publikoak beren artean koordinatuko dira Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren parte hartzen duten eragile eta profesional guztien prestakuntza sustatzeko eta planifikatzeko; bereziki, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin eta Gizarte Zerbitzuen Sistemarekin zerikusia duten alorretan.

3. Euskal administrazio publikoek zeinek bere eskumenen eremuan sustatuko dituzte ikerketa eta prospektibaren hobekuntza inklusioaren alorrean, gizarte-inklusioaren alorreko berrikuntzaren eta jakintzaren kudeaketaren mesedetan.

4. Euskal administrazio publikoek beharrezko diren bitartekoak antolatuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoan, beste autonomia-erkidego batzuetan eta Europako beste estatu batzuetan garatutako jardunbide egokiak zein diren zehazteko eta haien jarraipena egiteko.

5. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak une bakoitzean indarrean dagoen Gizarte Inklusiorako Planean sartuko du atal bat, inklusioari buruzko ebaluazio, ikerketa eta berrikuntzaren gainekoa. Urtero garatu eta ebaluatuko da, eta Inklusiorako Erakunde arteko Batzordeak ekarpenak eta jarraipena egingo dizkio. Plan horrek zehaztuko du zer jarduketara dagokion sail arduradunaren estatistika-organo espezifikoki eta Lanbideko kabinete teknikoari, bai eta euskal unibertsitateekin, ikerketa-zentro espezializatuarekin eta hirugarren sektorearekin lankidetzan egitekoak ere.







## V. TITULUA. ESKUMEN- ETA FINANTZAKETA-ARAUBIDEA

### I. KAPITULUA. ESKUMEN-ARAUBIDEA

#### 85.-Xedapen orokorrak

1. Eusko Jaurlaritzaren eskumen dira arau-garapena eta zuzeneko ekintza diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren alorrean, lege honetan eta berau garatzeko arauetan esleitzen zaizkion eran.

Lege honen ondorioetarako, zuzeneko ekintzatzat jotzen da, Eusko Jaurlaritzari esleitzen zaizkion exekuzio-ahalez gain, exekuzio-eskumena programa, prestazio eta zerbitzu hauek direla-eta: beren interes orokorrarengatik, beren izaera eta ezaugarriengatik, edo izan dezaketen erabiltzaile-kopuruarengatik, edo autonomia-erkidego mailan emanda lor daitezkeen eskala-ekonomiengatik Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde osoan modu bateratuan eman behar direnak.

Eskakizun horiek betetzen direla arrazoitu egin beharko da eta hala adierazi Eusko Jaurlaritzaren dekretu bidez, Inklusiorako Erakunde arteko Batzordearen nahitaezko eta aldeko txostenaren ondoren.

2. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, foru-aldundiei eta udalei dagokie diru-sarrerak bermatzeko eta gizarte- eta lan-inklusioko arauak betearaztea, lege honetan eta lege hau garatzen duten arauetan ezarritakoaren arabera.

3. Eusko Jaurlaritzari dagokio, diputazio eta udalekin batera, euskal administrazioen arteko bideratze- eta koordinazio-protokoloen berrikuspena eta, hala badagokio, hobekuntza eta egokitzapena ezartzea, gizarte- eta lan-inklusioko beharrak dituzten pertsonen egoerei erantzun arin eta azkarra emateko.

#### 86.-Eusko Jaurlaritzaren eskumenak

1. Eusko Jaurlaritzari dagokio, diru-sarrerak bermatzearen eta inklusioaren esparruan eskumena duen sailaren bitartez, eginkizun hauek gauzatzea:

- a. Lege hau garatzeko arauak egitea eta onartzea.
- b. Sistemaren prestazioen onuradunen lan-aktibazioa eta -inklusioa sustatzea.
- c. Inklusio Aktiborako Euskal Plana gauzatzeko behar beste baliabide eta bitarteko prestatzea oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorraren lege-aurreproiektuan urtero sartuko diren sailen programen bidez.



- d. Berrikuspena eta, hala badagokio, eguneratzea egitea diagnosirako eta esku-hartze planifikaturako tresna tekniko erkideei, Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioekin lankidetzan eta koordinazioan.
- e. Estatistikak planifikatu eta diseinatzea kontuan hartuta gizarte- eta lan-integratzora bideratutako prestazio ekonomikoak eta gainerako baliabideak, lege honetan aurreikusitakoak, bai eta estatistika horiek egitea eta mantentzea ere, estatistika-arauen arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako administrazioekin lankidetzan eta koordinazioan.
- f. Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko ekintzakoak diren programak, prestazioak eta zerbitzuak gauzatzea.
- g. Pentsiodunentzako errenta bermaturako eta diru-sarrerak bermatzeko errentarako eskariak jasotzea.
- h. Pentsiodunentzako errenta bermatuaren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren instrukzioa, aitorpena, ukatzea, berrikuspena, aldaketa, kautelazko etetea eta azkentzea.
- i. Hilero ordaintzea pentsiodunentzako errenta bermatua eta diru-sarrerak bermatzeko errenta.
- j. Inklusio aktiborako hitzarmenak prestatzea, proposatzea, negoziatzea eta sinatzea.
- k. Gizarte-larrialdietarako laguntzak ikuskatzea.
- l. Gizarte- eta lan-inklusiorako prozesuen inplementazioa ebaluatzea. Ebaluazio horren barruan, banakako kasuak berrikusi ahalko ditu egokitzen jotzen duenean, eta, horrela, kontrolatzeko eginkizuna bete ahalko du, bere eskumen-mailan, lege honetan aurreikusitako prestazio ekonomikoen eta programen titular eta hartzaileei dagokienez.
- m. Inklusiorako esku-hartze eta jarduketa komunitarioak sustatzea, prestatzea eta garatzea, udalekin eta mankomunitateekin batera.
- n. Inklusiorako Erakunde arteko Batzordea eratzea.
- o. Gizarte Inklusiorako Euskal Kontseilua eratzea.
- p. Inklusiorako Euskal Plana onartzea eta plan hori Eusko Legebiltzarrari helaraztea.
- q. Etengabeko jarraipena egitea eta kontrol-funtzioa baliatzea pentsiodunentzako errenta bermatua, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta gizarte-larrialdietarako laguntza direla eta.
- r. Zehapen-ahala baliatzea bere eskumenen eremuan, lege honetan eta lege hau garatuko duten arauetan jasotako eran.
- s. Lege honetan aurreikusitako jarduketan jarraipen eta ebaluaziorako neurriak eta erregelamenduz ezar daitekeen beste edozein.





### **87.-Foru-aldundien eskumenak**

Lurralde historiko bakoitzeko foru-aldundiari dagozkio ondorengo eginkizunak, gizarte-inklusioaren arloan dituen eskumenen eremuaren barruan:

- a. Inklusiorako Euskal Plana gauzatzeko onartzen diren gizarte-inklusiorako foru-programak prestatu eta garatzea.
- b. Foru-departamentuak koordinatzea zerbitzu eta zentroyen sare bat diseinatu eta garatzeko, gizarte-babesaren alor guztietako gizarte-inklusioaren beharriaz emate aldera.
- c. Bazterketa-egoeren edo, hala badagokio, bazterketa-arriskuko egoeren balorazio espezializatua egitea, arau hauek ezarritakoaren arabera: 385/2013 Dekretua, gizarte-bazterketa balioesteko tresna onartzekoa, eta 185/2015 Dekretua, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroyari buruzkoa.
- d. Erregelamenduz zehazten denaren ildotik, gizarte-inklusiorako prozesu hauen jarraipen-lanak egitea: legean aurreikusitako prestazio eta laguntzen onuradunei eta/edo inklusio-hitzarmenen hartzaileei dagozkienena.

### **88.-Udalen eskumenak**

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalei dagozkio eginkizun hauek:
  - a. Hala badagokio, Inklusiorako Euskal Plana gauzatzeko onartzen diren gizarte-inklusiorako udal-programak prestatu, onartu eta garatzea.
  - b. Hala eskatzen duten pertsona eta familiei informazioa, balorazioa, diagnosia eta orientazioa ematea, udalen eskumenen barruan betiere.
  - c. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin koordinatzea inklusio-hitzarmenen esparruan.
  - d. Balorazioak edo diagnostikoak iradokitzen badute gizarte-bazterketarako arrisku-egoeraren bat dagoela, udalek dagozkion baremazioa egin dezakete, 185/2015 Dekretua beteta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroyari buruzkoa bera.
  - e. Hala badagokio, gizarte-txostenak egitea, gizarte-diagnostikoan jasotako informazioan oinarrituta, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta gizarte-diagnostikoa egiteko tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuak ezarritakoaren arabera. Erreferentziako gizarte-langilearen balorazioa eta proposamena ere gehituko zaizkio aurreko informazioari.
  - f. Udal-departamentuak koordinatzea zerbitzu eta zentroyen sare bat diseinatu eta garatzeko, gizarte-babesaren alor guztietako gizarte-inklusioaren beharriaz emate aldera.
  - g. Gizarte-partaidetza eta -inklusioa sustatzea gizarte-zerbitzuen eremuan.





- h. Gizarte-larrialdietarako laguntzen eskabideak jasotzea eta izapidetzea eta laguntza horiek onartzea eta ukatzea eta, hala badagokio, dagozkien ordainketak egitea.
  - i. Bere eskumenen esparruan, gizarte-larrialdietarako laguntzen titularren eta onuradunen jarraipen iraunkorra eta kontrola, eta, erregelamenduz zehazten diren kasuetan, pentsiodunentzako errenta bermatuaren eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunei dagozkien gizarteratze-prozesuen jarraipen-lanak egitea.
  - j. Bere eskumenen barruan, zehapen-ahala egikaritzea, lege honetan eta berau garatzen duten arauetan jasotako eran.
  - k. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari laguntzea erroldatzearen eta benetako bizilekuaren egiaztapenean.
2. Gizarte-zerbitzuak kudeatzeari begira —gizarte-larrialdietarako laguntzen kudeaketa barne hartuta—, udalez gaingiko erakundetan antolatuta dauden udaletan, edo foru-diputazioen laguntza behar dutenetan, erakunde horiek bereganatu ahalko dituzte artikulu honetan aipatutako eskumenak.

## II. KAPITULUA. FINANTZAKETA

### 89.-Finantzaketa-iturriak

Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren finantza-iturriak hauek izango dira:

- a. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak.
- b. Lurralde historikoetako aurrekontu orokorrak.
- c. Udalen aurrekontuak.
- d. Horretara zuzendutako beste edozein ekarpen ekonomiko; betiere, ordenamendu juridikoaren babesa badu.

### 90.-Finantzaketa

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan behar beste baliabide ekonomiko kontsignatuko da, urtero, lege honetan araututako prestazio ekonomikoen zenbatekoak finantzatzeko eta lege honen arabera Eusko Jaurlaritzari dagozkion eskumenak gauzatzeko.





2. Foru-aldundiek eta udalek, bakoitzak bere aurrekontuetan, behar beste baliabide ekonomiko kontsignatuko dute, urtero, lege honetan aurreikusitako eskumenak gauzatzeko.

### **91.-Finantza-elkarlana**

1. Euskal administrazio publikoen arteko elkarlana, bai eta euskal administrazio publikoen eta beste entitate publiko batzuen artekoa ere, lankidetza-hitzarmenez bitartez edo indarreko legedian araututako beste edozein moduren bitartez bideratuko da, elkarlan hori ezarritako helburuak betetzera lotzeko eta kasuan-kasuan egokitzen jotzen diren finantza-kontrolako neurrietara atxikitzeko.

2. Inklusio aktiborako hitzarmenen esparruan antolatzen diren programak, zerbitzuak edo zentroak zerbitzu horiek erregulatzeko dituen araudi espezifikoan aurreikusitakoaren arabera finantzatzeko dira.

## **VI. TITULUA. SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA. PARTE HARTZEA**

### **I. KAPITULUA. SAILEN ARTEKO NAHIZ ADMINISTRAZIOEN ARTEKO KOORDINAZIOA ETA LANKIDETZA**

#### **92.-Administrazio publikoen arteko lankidetza- eta koordinazio-eginbearra**

1. Euskal administrazio publikoek behar besteko lankidetza eta koordinazioa eman beharko diote elkarri, ahalik eta efikazia eta efizientziarik handiena bermatzeko Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren funtzionamenduan.

2. Lankidetza eta koordinazio horiek bideratze aldera, Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemak Inklusiorako Erakunde arteko Batzordea izango du funtzionamendurako.





### **93.-Inklusiorako Erakunde arteko Batzordea**

1. Inklusiorako Erakunde arteko Batzordea euskal administrazio publikoen arteko lankidetzarako organo goren gisa eratzen da, lege honetatik sortzen diren jardueretan erakundeen arteko koordinazioa ziurtatzeko.
2. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan inklusioaren alorrean eskumena duen sailari atxikiko zaio Inklusiorako Erakunde arteko Batzordea.
3. Inklusiorako Erakunde arteko Batzordeak kide hauek izango ditu:
  - a. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sei ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan inklusioaren alorrean eskumena duen sailburuak izendatuta. Bazterketak zenbait dimentsio dituenez, hauek ere izango dute gutxienez ordezkari bat: Hezkuntza Sailak, Enplegu Sailak, Gizarte Politiken Sailak, Osasun Sailak eta Etxebizitza Sailak.
  - b. Foru-diputazio bakoitzean inklusioaren alorrean zuzeneko eskumena duen diputatua edo administrazio organoaren arduradun nagusia, edo hark eskuordetua; gutxienez, zuzendari-maila izango du, edo horren parekoa.
  - c. Hiru udal-ordezkari, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkagarritasun nagusia duen udal-elkarteak izendatua.
4. Inklusiorako Erakunde arteko Batzordearen lehendakaritza honi egokituko zaio: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan inklusioaren alorrean eskumena duen sailburuari edo hark eskuordetuari. idazkaritza, berriz, honi egokituko zaio: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioan inklusioaren alorrean eskumena duen zuzendariari edo hark eskuordetuari.
5. Batzordeak, beharrezko edo egoki iritziz gero, jarraipen-azpibatzerdeak eratu ahalko ditu, eta haien jarduera-eremua unean uneko beharren arabera zehaztu ahalko da, bai zona geografiko jakin baterako, baita prestazio- edo jarduera-mota jakin baterako ere.

### **94.-Inklusiorako Erakunde arteko Batzordearen eginkizunak**

1. Inklusiorako Erakunde arteko Batzordeari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:
  - a. Inklusio Aktiborako Euskal Planaren proposamena prestatzea.
  - b. Aholku ematea lurralde- eta toki-eremuko planen eta programen gainean, bai eta gizarte-inklusioari eragiten dioten arau-xedapen foral eta lokalen gainean ere.
  - c. Gizarte-inklusioaren alorrean erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztietatik jasotzea informazioa gai horien inguruan onartzen dituzten plan eta programen jarraipen eta ebaluazioari buruz, bai eta gizarte-inklusioari eragiten dioten arauen aplikazioari buruz ere.





- d. Euskal administrazio publikoek lege honetan aurreikusten diren gaitan garatu beharreko jarduerak koordinatzeko beharrezko diren neurriak har daitezzen bultzatzea, bereziki kontuan hartuta jarduketara horiek garatzeko behar diren giza baliabideen eta baliabide materialen azterketa.
- e. Kudeaketaren kalitatea kontrolatzeko txosten bat egitea bost urterik behin, helburutzat hartuta ikustea zer disfunzio sor ditzakeen lege honetan xedatutakoa aplikatzeko eta gauzatzeko hiru instituzio-mailek esku hartzeak, eta, hala badagokio, xedatutakoa eraginkortasunez betetzeko eta garatzeko behar diren ekintzak proposatzea.
- f. Eusko Jaurlaritzak udalei gizarte-larrialdietarako laguntzak banatzeko erabili beharreko irizpideak aztertzea, eta, hala badagokio, irizpideok berrikustea proposatzea.
- g. Inklusio Aktiborako Euskal Planari bultzada eman eta jarraipena egitea.
- h. Ordenamendu juridikoak agintzen dizkion gainerako eginkizunak.

## **II. KAPITULUA. KONTSULTA ETA PARTE HARTZEA**

### **95.-Inklusiorako Euskal Kontseilua**

1. Inklusiorako Euskal Kontseilua aholku emateko eta parte hartzeko organo gisa eratzen da, eta diru-sarrerak bermatzeko eta inklusiorako gaitan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita egongo da. Bertan ordezkaturata egongo dira Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak; orobat sindikatu-antolamenduak, enpresaburuenak, erabiltzaileenak, inklusio-gaitan esku hartzen duten Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeak eta gizarte-inklusioren arloan lan egiten duten profesionalenak.
2. Kontseiluaren osaera, haren kideen izendapena, haren araubidea eta funtzionamendua erregelamendu bidez zehaztuko dira.

### **96.-Inklusiorako Euskal Kontseiluaren eginkizunak**

Inklusiorako Euskal Kontseiluari honako eginkizun hauek betetzea dagokio:

3. Nahitaezko aurretiko txostena ematea gai hauek direla eta:
  - a. Diru-sarrerak bermatzeari eta inklusioari buruzko lege-aurreproiektuak.
  - b. Diru-sarrerak bermatzeari eta inklusioari buruzko dekretu-proiektuak.





- c. Diru-sarrerak bermatzeari eta inklusioari buruzko plan orokorrak edo sektorialak, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoa bada haien jardueraremua, eta bereziki Inklusiorako Euskal Plana.
4. Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemari buruzko edozein gairen inguruan Jaurlaritzari aholku ematea eta proposamenak eta ekimenak aurkeztea.
5. Bazterketa-egoeran edo bazterketa-arriskuan dauden pertsonen oinarrizko premiak detektatzea eta aztertzea, Inklusiorako Erakunde arteko Batzordeari proposatzeko premia horiei aurre egiteko garatu beharreko jarduera-ildoak.
6. Inklusio-gaietan esku hartzen duten eragileei iradokizunak, informazioa eta proposamenak helaraztea eta haienak jasotzea.
7. Diru-sarrerak bermatzeko eta inklusio aktiboko gaietan erantzukizuna duten euskal administrazio publiko guztiek informazioa eman diezaiotela plan orokorren eta sektorialen betetzearen jarraipen eta ebaluazioaren gainean.
8. Bere antolaketa eta funtzionamenduko erregelamendua egitea.
9. Lege honen erregelamendu-garapenaren edo indarreko araudiaren ondoriozko beste edozein eginkizun.

## VII. TITULUA ARAU HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

### 97.-Arau-haustek

1. Arau-hauste dira lege honetan tipifikatu eta zehatzen diren ekintza edo omisio dolozkoak edo, zabarkeria-gradua edozein dela ere, erruzkoak, erantzuleek eginak.
2. Ezin izango da arau-hausteengatik zehapenik ezarri, dagokion zehapen-espeditentea izapidetzen ez bada aldez aurretik.
3. Izaeraren arabera, arinak, astunak edo oso astunak izango dira arau-haustek, kontuan hartuta, besteak beste, Administrazioari eragindako galera ekonomikoa.

Administrazioari eragindako galera ekonomikoa balioesteko, hau jartzen da erreferentziatzat: arau-haustea egin zen ekitaldian, ustezko arau-hauslearen bizikidetz-unitatearen ezaugarri berberak dituen bizikidetz-unitate bati zegokiokkeen diru-sarrerak bermatzeko errentaren gehieneko errenta bermatua. Erreferentzia horri zehapen-oinarria esango zaio aurrerantzean.







## **98.-Erantzuleak**

1. Erantzule dira lege honetan arau-haustetzat tipifikatutako ekintza edo omisioetan erortzen direnak, bai eta ekintza-omisio horietan lagundu dutenak ere, jarduketa aktibo edo omisibo batez, zeina gabe arau-haustea ez baitzen egingo; gainera, erruduntasunaren elementu subjektiboa ere behar da, dela doloa, dela errua zabarkeriatzat ulertuta, azken horretan ez-betetze hutsa ere sartuta.

Hauek izan daitezke erantzule:

- a. Prestazioaren titularrak.
  - b. Prestazioaren eskatzaileak.
  - c. Prestazioaren onuradunak.
  - d. Jarduteko gaitasunik gabeko arau-hauslearen legezko ordezkariak.
  - e. Prestazioaren onuradun edo eskatzaile izan gabe ere, haiei laguntzen dietenak, doloa edo errua medio, lege honetan arau-haustetzat jotako jarduketetan, halako moldez non azken horiek gabe ezinezko izango baitzen arau-haustea egitea.
2. Zenbait erantzule batera gertatuz gero arau-hauste bat egiten, zehapena betetzera solidarioki behartuta geratuko dira Administrazioaren aurrean.

## **99.-Arau-hauste arinak**

Hauek dira arau-hauste arinak:

- a. Prestazio ekonomikoak eskuratu, mantendu edo areagotzera zuzendutako jarduketak edo omisioak, doloa edo errua medio, bai eta prestazio ekonomikoak eskuratu, mantendu edo areagotzen laguntzekoak ere, baldin eta emaitza hauetakoren bat bada:
  - i. Jarduketa horietatik ondorioztatzea prestazioren bat bidegabeki jasotzea urteko zehapen-oinarriaren % 50 baino gutxiagoko zenbatekoan.
  - ii. Lortu nahi zen emaitza erdietsi zein ez, jarduketa horiek gauzatzeko unean ustezko arau-hauslearen bizikidetzta-unitateak eskuera zituen hileko baliabideak hileko zehapen-oinarriaren % 200 edo gutxiago izatea.

## **100.-Arau-hauste astunak**

Hauek dira arau-hauste astunak:

- a. Prestazio ekonomikoak eskuratu, mantendu edo areagotzera zuzendutako jarduketak edo omisioak, doloa edo errua medio, bai eta prestazio ekonomikoak





eskuratu, mantendu edo areagotzen laguntzekoak ere, baldin eta emaitza hauetakoren bat bada:

- i. Jarduketa horietatik ondorioztatzea prestazioren bat bidegabeki jasotzea urteko zehapen-oinarriaren % 50 edo gehiagoko zenbatekoan eta urteko zehapen-oinarriaren % 150 baino gutxiagokoan.
  - ii. Lortu nahi zen emaitza erdietsi zein ez, jarduketa horiek gauzatzeko unean ustezko arau-hauslearen bizikidetzta-unitateak eskueran zituen hileko baliabideak hileko zehapen-oinarriaren % 200dik gorakoak izatea eta hileko zehapen-oinarriaren % 300 edo hortik beherakoak.
- b. Norbaitek eskaintza egitea eta, hala badagokio, baimena ematea bere etxean errolda dadin beste inor, lege honetan aurreikusitako edozein prestazio edo laguntzatarako irispidea errazteko edo prestazio-laguntzok jasotzea zilegitzeko.
  - c. Prestazioa kobratzea benetan bizi gabe Euskal Autonomia Erkidegoan.
  - d. Hitzez beldurrarazi edo erasotzea Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren kudeaketarako eskumena duen administrazioko langileak.
  - e. Jaramonik ez egitea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren errekerimenduei; hain zuzen ere, 33.2 eta 34.2 artikuluetan ezarritakoei.
  - f. Bi arau-hauste arin edo gehiago bost urtean.

### **101.-Arau-hauste oso astunak**

Hauek dira arau-hauste oso astunak:

- a. Prestazio ekonomikoak eskuratu, mantendu edo areagotzera zuzendutako jarduketak edo omisioak, doloa edo errua medio, bai eta prestazio ekonomikoak eskuratu, mantendu edo areagotzen laguntzekoak ere, baldin eta emaitza hauetakoren bat bada:
  - i. Jarduketa horietatik ondorioztatzea prestazioren bat bidegabeki jasotzea urteko zehapen-oinarriaren % 150 edo gehiagoko zenbatekoan.
  - ii. Lortu nahi zen emaitza erdietsi zein ez, jarduketa horiek gauzatzeko unean ustezko arau-hauslearen bizikidetzta-unitateak eskueran zituen hileko baliabideak hileko zehapen-oinarriaren % 300dik gorakoak izatea.
- b. Prestazioa edo laguntza iruzurrez eskuratu edo mantentzera zuzendutako jarduketak, halakotzat hartuta, besteak beste, agiri faltsuak erabiltzea, publiko zein pribatu izan, erroldako datuak erabili edo aldatzea datuok errealitatearekin bat ez badatoz.
- c. Fisikoki erasotzea Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemaren kudeaketarako eskumena duen administrazioko langileei.
- d. Bi arau-hauste astun edo gehiago bost urtean.





### **102.-Arau-hauste bat baino gehiago batera gertatzea**

Lege honen 97. artikulua eta hurrengoek aipatzen dituzten jardueren ondorioz arau-hauste bat baino gehiago burutzen bada, egindako arau-hausteetatik astunena baino ez da zehatuko.

### **103.-Arau-hausteak batera gertatzea eta jurisdikzio-ordena penalarekiko aldiberekotasuna**

1. Ezingo dira zehatu zehapen penala edo administratiboa jaso duten egitateak, subjektua, gertakaria eta funtsa berberak direla ikusten den kasuetan.

2. Administrazio-erantzukizuna dakarten egintzak, gainera, Zigor Kodean ere delituztat tipifika badaitezke, organo eskudunak Ministerio Fiskalari komunikatuko dio, eta testigantza eskatuko dio komunikazioaren gainean egindako jarduketei buruz. Zehapen-izaerako administrazio-espeditentaren izapidetzea eten beharko da subjektua, gertakaria eta funtsa berberak direnean, behin agintaritza judizialak komunikatuta prozesu penala hasi dela.

Ministerio Fiskalaren komunikazioa jasota, prozedura ebazteko eskumena duen organoak prozedura etengo du ebazpen judizial irmoa izan arte.

Zehapen-izaerako administrazio-prozedura eteteak ez du eragozten hartutako kautelazko neurriei eustea; betiere, neurri horiek bateragarriak badira prozedura penalean erabakitakoekin. Nolanahi ere, ebazpen judizial penal irmoz frogatuztat jotako egitateak lotesleak izango dira administrazio publikoentzat berek bideratzen dituzten zehapen-prozedurei dagokienez.

### **104.-Zehapenak**

1. Arau-hauste arinei 200 eurorainoko diruzko isuna ezarriko zaie.

Era berean, arau-hauste arinei zehapen hau ere ezarriko zaie: prestazio ekonomikorik jasoz gero, hura azkentzea, eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemako beste edozein laguntza edo prestazio berriz ere eskatu ezina 3 hilabetez, zehapen-prozedura ebazten den datatik aurrera.

2. Arau-hauste astunei 201 eurotik 500 eurorainoko diruzko isuna ezarriko zaie.

Era berean, arau-hauste astunei zehapen hau ere ezarriko zaie: prestazio ekonomikorik jasoz gero, hura azkentzea, eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemako beste edozein laguntza edo prestazio berriz ere eskatu ezina urtebetez, zehapen-prozedura ebazten den datatik aurrera.

3. Arau-hauste oso astunei 501 eurotik 5.000 eurorainoko diruzko isuna ezarriko zaie.





Gainera, arau-hauste oso astunei zehapen hau ere ezarriko zaie: prestazio ekonomikorik jasoz gero, hura azkentzea, eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemako beste edozein laguntza edo prestazio berriz ere eskatu ezina 5 urtez, zehapen-prozedura ebazten den datatik aurrera.

Hala ere, 101.b artikuluan jasotako arau-haustearen kasuan, aurreikusitako zehapenari hau gehituko zaio: prestazio ekonomikorik jasoz gero, hura azkentzea, eta Diru Sarrerak Bermatzeko eta Inklusiorako Euskal Sistemako beste edozein laguntza edo prestazio berriz ere eskatu ezina 10 urtez, zehapen-prozedura ebazten den datatik aurrera.

4. Artikulu honetan aipatutako zehapenak gorabehera, bere hartan dirau bidegabeki jasotako zenbatekoak itzuli beharra.

### **105.-Zehapenen graduazioa**

Zehapenak graduatzerakoan honako hauek hartuko dira kontuan:

- a. Administrazioari eragindako galera ekonomikoa.
- b. Arau-haustea egiteko nahitasun-maila.
- c. Euskal administrazio publikoek aurretik egindako errekerimenduak ez betetzea.
- d. Familia-inguruabarrak; bereziki, egoera ekonomikoari dagokionez.
- e. Urtebetean, kalifikatutako arau-haustea egin zenetik kontaktzen hasita, izaera bereko edo desberdineko beste arau-hauste bat edo batzuk egitea, administrazio-ebazpenaren bidez irmotzat joak.
- f. Damua, eta zehapen-prozedura hastea ekarri zuten galerak erremediatzea, betiere prozedura hori amaitu aurretik gertatu bada.

### **106.-Preskripzio-araubidea**

1. Lege honetan tipifikatutako arau-hauste oso astunen preskripzioa lau urtekoa izango da, astunena hiru urtekoa eta arinena urtebetekoa, arau-haustea egin den egunetik kontaktzen hasita. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokaera arau-hauslea amaitu zen unetik hasiko da epea aurrera egiten.

Arau-haustearen preskripzioa geldiarazi egingo da zehapen-izaerako administrazio-prozedura bat hasten denean, ustezko erantzulea jakitun dela. Preskripzioa epe osoarekin hasiko da berriz ustezko erantzulari egozterik ez dagoen arrazoiren batengatiko prozedura-etendurak hilabetea bete eta hurrengo egunetik aurrera, edo prozedura erantzukizun-deklaraziorik gabe amaitzen den egunaren biharamunetik aurrera.

2. Arau-hauste oso astunengatik ezarritako zehapenen preskripzioa lau urtera emango da, astunengatikoa hiru urtera eta arinengatikoa urtebetera, zehapena ezartzen duen ebazpenak administrazio-bidean irmotasuna hartzen duen egunaren biharamunetik kontaktzen hasita.





Zehapenaren preskripzioa geldiarazi egingo da betearazpen-prozedura hasten denean, interesduna jakitun dela; preskripzio-epeak berriro egingo du aurrera, baldin eta prozedura hilabete baino gehiagoz geldiarazita egon bada arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoiren batengatik.

### **107.-Zehapen-prozedura**

1. Zehapen-prozedura erregelamenduz finkatuko da, eta lege hauetan ezarritako printzipioak hartuko ditu kontuan: 2/1998 Legea, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzkoa; 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta 40/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
2. Aurreko paragrafoan adierazitako erregelamendu-garapenak kontuan hartuko ditu kasu hauek: zehapen-espedientea hasteko unean, prestazioa berrikusteko ebazpena eman bada eta hargatik organo eskudunak bere esku baditu zehapena ezartzeko proposamena egiteko elementu guztiak, zehapen-espedientea hasteko erabakiari batuko zaio zehapena ezartzeko proposamena.

Hasteko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio, espedientea agerian jarri dela adierazi, eta 15 eguneko epea emango zaio komenigarri iritzitako guztia alegatu dezan eta egoki iritzitako dokumentu, egiaztagiri eta frogak aurkez ditzan.





## **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

### **Lehenengoa. Indarreko araudiaren aplikazio iragankorra**

Eusko Jaurlaritzak lege hau erregelamendu bidez garatu arte, egun indarrean dauden arauak aplikatuko dira, lege honen xedapenei kontra egiten ez dieten neurrian.

### **Bigarrena. Diru-sarrerak bermatzeko errentaren araubide iragankorra.**

1. Lege honek indarra hartzean eskubidezko prestazio ekonomikoen onuradun diren bizikidetzta-unitateek bizikidetzta-unitate iraunkorren izaera hartuko dute, harik eta Lanbidek errekerimendua egiten dien arte, osaera berria zehaztearren lege berriaren arabera.
2. 9. artikuluan zehaztutako salbuespenezko bizikidetzta-unitateen tratamendu berbera emango zaie bizikidetzta-unitate iragankorrei, hamabi hilabetez gehienez ere.
3. Kasu hauetan galduko da bizikidetzta-unitate iragankorraren izaera:
  - a. Aurreko apartatuan ezarritako gehieneko aldia amaitzea.
  - b. Ebazpena, Lanbidek errekerimendua egin ondoren, bizikidetzta-unitatearen osaera berria zehazteko.
  - c. Eskubidezko prestazio ekonomikoaren titularraren helbide-aldaketa.
  - d. Prestazioa azkentzea.
4. Lege honek indarra hartzean etenda dauden eskubidezko prestazio ekonomikoak azkendu egingo dira, hargatik eragotzi gabe beste prestazio bat eskatzea arau berrien arabera.
5. Lege honek indarra hartzen duenean kalkulatu da bizikidetzta-unitate bakoitzarentzako hileko zenbateko onartua, unitatearen osaerari begiratuta eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskueran dituen datuetan oinarrituta.
6. Lege hau indarrean sartu aurreko aldiek aurreko araudia izango dute jarraibide ondorio guztietarako. Lege hau indarrean sartu osteko aldiei, berriz, egungo araudia aplikatuko zaie, hargatik eragotzi gabe bizikidetzta-unitate iragankorrenzat ezarritakoa.

### **Hirugarrena. Pentsiodunentzako errenta bermatuaren araubide iragankorra**

1. Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 9.2 artikuluan definitutako motako bizikidetzta-unitateek, lege honek indarra hartzeko unean eskubidezko prestazio ekonomikoen onuradun baziren, pentsiodunentzako errenta bermatua eskuratuko dute, baldin eta legeak ezarritako betekizunak betetzen badituzte.





2. Lege honek indarra hartzen duenean kalkulatu da pentsiodunen gune bakoitzarentzako hileko zenbateko onartua, kideen kopuruari begiratuta eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskueran dituen datuetan oinarrituta.

3. Lege hau indarrean sartu aurreko aldiek aurreko araudia izango dute jarraibide ondorio guztietarako. Lege hau indarrean sartu osteko aldiei, berriz, egungo araudia aplikatuko zaie, hargatik eragotzi gabe bizikidetzaren unitate iragankorrenzat ezarritakoa.

### **Laugarrena. Gizarte-larrialdietarako laguntzen araubide iragankorra Euskal Autonomia Erkidegoko udalentsako konpentsazioari dagokionez**

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak gizarte-larrialdietarako laguntzei egindako esleipenak baliabide gehiagoz emendatzea hobesten duten udalei konpentsatzeko bide alternatibo bat erregelamenduz zehaztu arte, indarrean eutsiko zaio gizarte-larrialdietarako laguntzen araubide iragankor honi: Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean aurreikusitakoari.

### **Bosgarrena. Prozeduren araubide iragankorra**

1. Lege hau aplikatuko zaie indarrean sartzen denetik aurrera hasitako prozedurei.
2. Lege hau indarrean sartu aurretik hasitako prozedurek aurreko araudia izango dute jarraibide ondorio guztietarako.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehenengoa. Garapen-arauek**

Aurreikusitako prestazio ekonomiko guztiak arautzeko dekretuak Eusko Jaurlaritzak egin eta onartuko ditu urtebeteko epean, lege hau indarrean sartzen denetik kontaktzen hasita.

### **Bigarrena. Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlea**

Euskadiko gutxieneko gastu arrunten adierazlearen balioa behar bezala eguneratuko dela bermatzeko, balio horren eguneratzeari buruzko txostena egingo du Eusko Jaurlaritzak lau urtez behin gutxienez. Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoan estatistikaren alorreko eskumena duten organismo publikoei eskatuko die berriazko txostenak egin ditzatela etxebizitza edo bizitoki independente baten



gutxieneko mantentze-kostuaren bilakaerari buruz, bereziki azpimarratuta edozein motatako bizikidetz-unitate batentzat arruntzat jo daitezkeen oinarrizko gastuen zehaztapena.

### **Hirugarrena. Zehapenen zenbatekoa eguneratzea**

Eusko Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege honetan aurreikusitako zehapenen zenbatekoa eguneratzeko.

### **Laugarrena. Informazioa trukitzea**

Administrazio-bizkortasun edo -zalutasunaren ondorioetarako, administrazio publiko guztiek hauek eskuratuko dizkiete diru-sarreraren bermearen eta inklusioaren alorrean eskumena duten organoei: lege honetan arautzen diren prestazio ekonomikoen titular eta onuradunen datuak, organo horiek bere jardunerako beharrezkoak dituzten neurrian hala prestazioak aitortzeko prozeduretan nola kontrol eta jarraipenerakoetan.

Bereziki, Gizarte Babeseko Sistemaren prestazioak elkarri egokitzea bermatze aldera, bereziki kontuan hartuta gizarte-larrialdietarako laguntzak eta etxebizitzarekin zerikusia dutenak, haien organo kudeatzaileen informazio-sistemen arteko elkarreragingarritasuna bermatuko da.

### **Bosgarrena. Hitzarmenak autonomia-erkidegoekin**

Gizarte- eta lan-inklusioren mesederako, bai eta pentsiodunentzako errenta bermatua eta diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzen duten edo jaso dezaketen pertsonen bizitza-proiektuak errazte aldera, Eusko Jaurlaritzak, elkarrekikotasun-printzipioaren arabera, bere esku izango du hitzarmenak lotzea inguruko beste autonomia-erkidego batzuekin, pertsonen autonomia-erkidegoen arteko mugikortasuna ahalbidetzeko, gutxieneko baliabide batzuetarako eskubideetan galerarik izan gabe.

### **Seigarrena. Politika fiskalak eta diru-sarrerak bermatzeko politikak**

Lege hau onartu eta urtebeteko epean, Eusko Jaurlaritzak Herri Dirubideen Euskal Kontseiluari bidaliko dio azterlan bat analisi honekin: ea egoki den ala ez esparru fiskal orokorrean sartzea aurreratutako kenkari fiskal itzulgarriak edo bestelako neurri batzuk, politika fiskalak eta diru-sarrerak bermatzeko politikak hobeto egokitzeko elkarri.

### **Zazpigarrena. 3/2011 Legearen 2. artikulua 3. atalaren aldaketa**

Urriaren 13ko 3/2011 Legearen, Euskal-Enplegu Zerbitzuari buruzkoa, 2. artikulua 3. atala aldatzen duena, zeina modu honetan idazten da:







“3.- Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren xedea da bere zerbitzuen erabiltzaileak artatzeko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

Ondorio hauetarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sistema biometrikoak erabiliko ditu identifikatzeko erabiltzaileak edota berak emandako prestazioen onuradunak, datuak babesteko legediaren zehazpenekin bat etorriz.”

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

- 1.
2. Indargabeturik geratzen dira lege honetan xedatutakoarekin kontraesan dauten edo haren aurka doazen maila bereko edo apalagoko arauak.
3. Beren-beregi indargabetuta geratzen dira 18/2008 Legea abenduaren 23koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzekoa, eta 4/2011 Legea, azaroaren 24koa, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Legea aldatzekoa. Salbuespen da lege horren II. tituluko II. atala, etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriari dagokiona, indarrean eutsiko baitzaio harik eta indarrean sartzen diren arte Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 9. artikuluan aurreikusitako erregelamendu-xedapenak, izaera subsidiarioarekin prestazio ekonomikoen sistema bat ezartzeari dagokionez; horrenbestez, prestazioak emateko araubide eta prozedura hori aplikatuko zaie, modu iragankorrean, Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen laugarren xedapen iragankorrak aurreikusi duen arabera prestazio ekonomiko baten onuradun izan daitezkeenei.

### **AZKEN XEDAPENAK**

#### **Lehenengoa. Aurrekontu-egokitzapenak**

Eusko Jaurlaritzari gaitasuna ematen zaio lege honetan araututako prestazio ekonomikoak finantzatzeko beharrezko diren egokitzapenak eta/edo moldaketak egiteko, aurrekontu-gaietan eskumena duen sailaren bitartez.

#### **Bigarrena. Arau-garapena**

Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio lege honen arau-garapenerako beharrezkoak diren xedapen guztiak eman ditzan.





### **Hirugarrena. Ordezko araubidea**

Lege honetan aurreikusten ez diren kontuetan honako hauek aplikatuko dira:

- a. Administrazio-prozedurari dagokionez, 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- b. Zehapen-araubideari dagokionez, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak eta gai horretan indarrean dagoen gainerako legeria orokorrak aurreikusitako arau substantiboak eta prozedurazkoak.
- c. Diru-laguntzen araubideari dagokionez, gizarte-larrialdietarako laguntzei eragiten dieten kontuetan, diru-laguntzei eta laguntzei buruzko arau orokorrak.

### **Laugarrena. Legea indarrean sartzea**

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta urtebete igarota, hurrengo hileko lehenengo egunean jarriko da indarrean lege hau.

